



JIRA

Betiko 50
kanta eta jolas

BUELTAN




JIRA

Betiko 50
kanta eta jolas

BUELTAN

Egileak

Badihardugu Euskara Elkarte, Eibar



Liburua

Marrazkiak. Eider Eibar ©

Testua. Idoia Etxeberria

Argazkiak. Badihardugu

DVDa

Adinekoen grabazioak. www.ahotsak.eus

Umeen grabazioak. Haizea Odria, Iker Ugalde, Marta Lopez, Idoia Etxeberria

Bideoen edizioa. Haizea Odria, Iker Ugalde, Marta Lopez

Marrazkiak. Eider Eibar ©

Maketazioa eta inprimaketa:

Gertu Inprimategia, Oñati

ISBN: 978-84-606-6711-7

L.G.: SS-1218-2017

Aurkibidea

HASIERAN BI HITZ.....	7	KANTA-JOLASAK	31
JOLASAK.....	9	Keinuka egitekoak.....	33
Txafos	11	Binbili-bonbolo	34
Zapiaren jolasa	12	Txakurtxua	35
Tren txartelen jolasa	13	Katarramixon	36
Txapa lasterketa	14	Arre arre mandako	37
Asto katea	15	Kukurruku	38
Txirikiletan	16	Esku-jolasak	41
Potxoloka	18	Maru-marutxo	42
Kastorreen edo krinketean	20	Atxia-motxia.....	43
Punta ala buru	22	Atzamarren jolas-ipuina	44
Orratzetan	23	Lehenengotxo hori	45
Tortolosekin jolasean	24	Marigorringo	46
Tortolosak hartzea	25	Txalo pin txalo	47
Tortolosak jiratzea	26	Antontxu zara zu	48
Txingoan jolasean.....	28	Dingilin-dangolon	49
Txingoka edo harri-harrika.....	29	Egurretan.....	50
Txingor-gaingan edo txindurrika	30	Kukuarena txaloka.....	51



Sokasaltokoak	53
Haria mataza	54
Libiri-labero.....	55
Txanturrillo edo Txantxibiri	56
Zotz egitekoak	57
Arriola Marriola	58
Don Don Kikilikon.....	59
Dona Dona Katona.....	60
Mugimenduzkoak	61
Goazen baratzera.....	62
Andra Joxepa tronpetan	63
Kukuarena dantzan	64
Horra hor goiko	65
Andre Madalen.....	66
Alpargatak urratuta	67
Kiskilla-miskilla	68
Arbolatik arbolara	70
Artalataiko.....	72

ABESTIAK	73
Txikitxo polit hori	75
Bonbolontena.....	76
Urte berri-berri	77
Joles eta joles.....	78
San Juan Portaletaña.....	80
San Juanetako kanta-esaera.....	81
Markesaren alaba	82
IKASTETXEETAN JOLASEAN	86
BUKAERAKO HITZAK	89



Hasieran bi hitz

Gure aurreko belaunaldiei jasotako kanta eta jolasak berreskuratu eta biziberritzea da lan honen helburua: berriaz gure artean izan daitezen, jira-jira bueltan!

Zer daukat eskuartean?

Betiko 14 jolas, 30 kanta-jolas eta 7 abesti.

Liburuxka (azalpenak) eta DVDa (bideoak).

Zein adinetako umeentzat?

0-12 urte, baina batez ere 4-10 urte bitartekoentzat.

Norentzat da aproposa?

Umeekin jolastu nahi duen edonorentzat, baina bereziki guraso, irakasle eta hezitzaileentzat.

Euskal Herriko Ahotsak, **Ahotsak.eus**, proiektua ahozko ondarea jasotzeko eta zabaltzeko sortu zen. Badihardugu euskara elkartearen proiektu nagusia da. Batik bat adineko pertsonen testigantzak jasotzen ditugu, bideoan. Jasotako ondare aberats hori sutondotik ikasgeletara eramateko asmoz, 2011. urtean hezkuntzako proiektua

jarri genuen abian. Liburuxka-DVD hau ibilbide horren emaitzetako bat da.

51 kanta eta jolas landu ditugu guztira, guregana ahoz aho iritsi direnak. Adineko 60 lekuko baino gehiagoren testigantzetan oinarritu gara kanta eta jolas hauek proposatzeko. Gehienak 4-10 urte bitarteko umeentzat dira aproposak, nahiz eta tartean badauden ume txikiagoekin eta handiagoekin egiteko modukoak ere.

Deba eskualdeko lau udalen babesaren abesbatza izan dugu proiektu honetan: Eibar, Elgoibar, Eskoriatza eta Aretxabaleta. Guztira 9 ikastetxetako 300 haur baino gehiagok hartu dute parte, Haur Hezkuntzakoak zein Lehen Hezkuntzakoak. Adinekoen testigantzak kontuan izanda, kantak eta jolasak bere egin dituzte. Ondoren, gu umeak grabatzera joan gara.

Liburuxka honetan bildutako kanta eta jolasei buruzko informazio gehiago eta ikastetxeetan erabiltzeko fitxak, Ahotsak Ikasgelan webgunean:

<http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>



JOLASAK



TXAFOS

Bi talderen arteko harrapaketa jolasa



Surte+

Zer behar da?

Espazio zabala. Klariona edo itsas-ten den zinta, lurreen marraz egiteko.

Nola jolastu?

1. Lurreen lau marra paralelo egin. Alde batean bi, elkarrengandik nahiko gertu (2-3 pausora), eta handik 8-10 pausora beste biak.
2. Umeak bi taldetan banatu. Taldekideak aukeratzeko, zotz egin. Bi taldeek kide kopuru bera izango dute, eta talde bakoitzari jolastokiaren alde bat egokituko zaio (etxe bat). "Epailea" ere izendatuko da.
3. Bi aukera daude: aldiko bi jokalaririk egitea korrika (ikus marrazkian), edo denek batera (ikus argazkian). Txandaka: lehenengo alde batetik eta hurrengoan bestetik. Beste taldeko

umei (bisitariari) abantaila emango zaie korrika hasteko garaian: 2-3 pauso aurrerago egongo dira, aurreko marra. "Epaileak" seinalea ematean, korrika hasiko dira. Etxekoa bisitaria harrapatzen saiatuko da, eta hura, berriz, bere etxera iristen.

4. Etxekoak bisitaria harrapatzen badu, bisitaria jolasetik kanpo geratuko da. Ez badu harrapatzen, berriz, etxekoa geratuko da kanpoan. Beste aukera bat: inor ez kanporatzea, eta harrapatutakoa taldez aldatzea.
5. Taldeetako bat jokalaririk gabe geratzean amaituko da jolasa.

Iturria

"Txafos" jolasa Itziar Ajuria eta Miren Vallejo elgoibartarren ahotan jasotzen dugu.



ZAPIAREN JOLASA

Zapi batekin egiten den harrapaketa jolasa



Surte+


Zer behar da?

Zapi bat eta jolasteko leku zabal bat.

Nola jolastu?

1. Bi marra edo marka marraztuko ditugu lurrean. Marren arteko distantzia (adibidez, 8 pasoa) izango da jolaslekua. Erdibidean (adibidez, bi aldeetatik 4 pasora) ipiniko da zapiduna.
2. Zapia eutsiko duena izendatu ostean, gainerako umeak bi taldetan banatuko dira. Talde bietako kideen kopurua bera izango da, eta jokalaria bakoitzak zenbaki bat izango du: 1, 2, 3...

3. Talde bateko kideak marra/marka baten atzean jariko dira eta besteak parean, beste marren atzean. Zapidunak zenbaki bat esango du, eta zenbaki hori duten bi jokariak -talde bakoitzetik bat- zapia-iren bila abiatuko dira.
4. Helburua: zapia hartu, eta bueltan taldekideei eramatea. Bidean doala beste taldekoak harrapatuz gero, zapia bestearentzat izango da. Zapia lortzen ez duena jolasetik kanpo geratuko da, eta bere zenbakia beste taldekide batek hartuko du.
5. Taldeetako bat jokalaria gabe gertzean amaituko da jolasa. Beste aukera bat: inor ez kanporatzea, eta puntu kopuru jakin batera iristean bukatzea jolasa.



- Zenbakiak banaka esan beharrean, binaka eta hironaka ere esatea. Binaka esanez gero, zenbaki horiek dituzten bi pertsonak bata bestearen gainean, bizkarrera igota, joango dira zapi bila. Hiru zenbaki esanez gero, berriz, "erreginaren aulkia"-n: bik elkarrri eskuak eman, eta hirugarrena beso gainean eserita eramango dute.

Jolasteko modu alternatiboak

- Zenbakiak esan beharrean, batuketak eta kenketak esatea. Adibidez: 12 ken 8 esanez gero, 4 zenbakia dutenak irtengo dira.

Iturria

Elgoibarren jaso dugu; han "bandereta" jolastea esaten zioten.



TREN TXARTELEN JOLASA

Txartelak hormaren kontra jarrita egiten den jolasa



3 urte+

Zer behar da?

Klariona edo itsasten den zinta (markarik uzten ez duena). Eta tren txartelak, kromoak edo kartoizko lauki-zuzenak.



Nola jolastu?

1. Horman marra horizontal bat egin, lurretik metro batera (umeen altuera kontuan izan).
2. Ume bakoitzak txartel kopuru bera izan behar du. Adibidez, 5. Laukizuzenak umeek beraiek moztu ditzakete, jolasten hasi aurretik. Aukera bat: txartel bakoitzari pun-

tuak, zenbakiak edo koloreak jarzea (adibidez, urdinek 3 puntu, horiek 2 puntu eta gorriek puntu 1 balio dezakete).

3. Umeek hormara gerturatuko dira, banaka, eta aldiko txartel bat jarriko dute marraren parean, hormaren kontra, eta handik etortzen utzi. Lehendik lurrean zeuden beste txartelen gainera eroriz gero, bota duen txartela eta lurrekoa, biak berarentzat izango dira. Ez bada hala, berea ere lurrean utziko du.

4. Txartel edo puntu gehien lortzen dituenak irabaziko du.

Iturria

Miren Vallejo elgoibartarrak eta haren lagunek egiten zuten tren txartelen jolasa. Sasoi batean umeek jostailu gutxi zuten eta dena baliatzen zuten jolaserako, baita garraio txartelak ere.



TXAPA LASTERKETA

Ibilbidea marraztu eta txapekin lasterketa egitea




4urte+



Zer behar da?

Klariona, bidea marrazteko, eta boti-
len txapak.



Nola jolastu?

1. Txapak prestatu. "Dotoretu" egin di-
tzakegu: pintatu, koloretako papera
edo argazkiren bat itsatsi...
2. Ibilbidea prestatu. Txapa lasterke-
ta hasi aurretik, lurrian ibilbidea
marraztu, klarionarekin, errebueltak
dituena... *Hasiera* eta *Helmuga*
izango ditu. Talde bakoitzak (4-5 la-
gun) bere ibilbidea egin dezake.
3. Jokalari bakoitzak ibilbidearen ha-
sieran jarriko du bere txapa. Ha-
tzarekin jo behar da txapa, aurre-
ratzeko. Txandaka jolastuko dugu,
aldiko batek ukitu bat emango dio
bere txapari. Ibilbidetik atera dena
berriro hasiko da, eta marra zapal-
tzen geratu baldin bada ere *Ha-
siera*-ra bueltatuko da. Beste aukera
bat: beste baten txapa joz gero,
hura *Hasiera*-ra bidaltzea.
4. *Helmuga*-ra lehenengo iristen denak
irabaziko du.



Ume oso txikiekin bideak nahiko zu-
zuna izan behar du eta zabal sama-
rra. Aukera bat: bi sokarekin egitea bi-
dea; horrela, txapak ez dira bidetik
hain erraz aterako. Handiagoekin,
zigi-zagatsua goa izan daiteke. Posible
da oztopoak jartzea ere (zubiak, tu-
nelak...).

Iturria:

Bereziki Eibarko eta Arrasateko adi-
nekoen testigantzak izan ditugu kon-
tuan. Kanikekin ere posible da laster-
ketak egitea, baina errazago ateratzen
dira bidetik.



ASTO KATEA

Astoarena egiten jarri eta gainetik salto egitea



7 urte+



Zer behar da?

Espazio zabala, katea osatzeko lekua.

Nola jolastu?

1. Saltagina izan ezik, gainerako denak astoarena egiten jarriko

dira, ilara bat osatuz. Makurtu, eta eskuak belaunetan jarriko dituzte; burua, berriz, barrurantz sartuta. Astoen artean tartea egotea komeni da, saltaginak ondo salto egin ahal izateko.

2. Saltagina asto ilararen hasieran jarriko da, eta asto denen gainetik saltoka hasiko da, banan-banan. Eskuak astoaren bizkar gainean jarri, eta hankak ondo zabalduko ditu, astoa hankarekin ez ukitzeko. Bukaerara heldutakoan, bera jarriko da asto moduan.
3. Ilarako lehen astoa zutitu, eta saltagin bihurtuko da. Astoen gainetik salto egingo du. Horixe egingo dute denek, txandaka. Etenik gabekoa dirudien katea osatuko dute.
4. Aurreikusitako ibilbidea amaitzean bukatu daiteke jolasa (adibidez: plazari buelta osoa ematean).

Iturria

Aramaion, Arrasaten eta Aretxabaletan jasotako testigantzetan oinarritu gara. Antzinako jolasa da, Euskal Herrian ez ezik munduko beste hainbat herrialdetan ere egiten dena. Astoka egiteko modu asko daude: denak asto moduan jarrita, bakarra jarrita, binaka, taldeka... "Txorro-morro" da horietako bat.



TXIRIKILETAN

Txirikila ahalik eta urrutien jaurtitzea

Zer behar da?

Espazio zabala. Eta bi makila. Bata 20 zm ingurukoa, puntak zorroztua dituen: *txirikila*. Bestea metro erdi ingurukoa: *galderoia* edo *mazetia*. *Txirikila* puntaduna izatea nahi ez badugu, beste aukera bat lurrean egurtxo karratu bat jartzea da, eta txirikila han gainean (ikus argazkian).



Nola jolastu?

Txirikila airean hartzen saiatzea (jollasteko modu tradizionala) arriskutsua gerta daiteke. Istripu arriskurik ez izateko, gure proposamena *txirikila* jaurti eta ondoren jaurtiketa neurtzea da.

1. "Epailea" izendatuko da eta taldeak osatuko dira. Nola? Bi-hiru metrora marra bat marraztu lurrean (edo makila bat jarri). Bi lagunek txirikila jaurtiko dute, *galderoiarekin* jota. Txirikila marra hurbilen uzten duenak taldekideak aukeratuko ditu.
2. Talde bakoitzeko ordezkariak banan-banan txirikila jaurtiko dute (hiru aukera izango ditu bakoitzak), eta gero epaileak distantzia makilarekin neurtuko du (adib. 6 *galderoi*). Aldiro pertsona bakarra izango da *txirikileroa* (*txirikila* jaurtiko duena). Jaurtitzera doanean, oihu egingo du: "Kalderon!". "Jo



eta bertan egon!" erantzungo dute gainerakoek. Hala, adi egongo dira (eta istripuak ere saihestuko dira).

Bi pauso ematen dira jaurtiketari: makila luzearekin (*galderoia* edo *mazetia*) makila txikia (*txirikila*) jotzen da, puntan, eta, txirikila airean dagoenean, berriz jotzen zaio galderoiarekin. Txirikila hegan ateratzen da.

3. Txirikila ahalik eta urrutien bidaltzea da helburua. Puntu edo *galderon* gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du.

TXIRIKILETAN



Jolasteko modu tradizionala

1. Lurrean biribil bat marraztuko dugu: *torria*; hortik jaurti behar da txirikila.
2. Lehenengo taldeko lehenengo jokalaria hasiko da (hiru aukera ditu).
3. Jokalariak ez badu txirikila jaurtitzea lortu, taldeko hurrengoaren txanda da. Lortu badu, berriz, beste taldekoak txirikila hori hartzen saiatu behar dira. Airean hartuz gero (gonan, jertsearekin, eskuetan...) jaurtitzailea kanporatuta geratuko da. Lurretik hartuz gero, dau den tokitik mugitu gabe jaurti behar dute, eskuarekin, biribilerantz. *Torrera* sartzen bada, talde aldaketa egongo da. Txirikila *torrera* sar ez dadin, jaurtitzaileak *torria* galderoiarekin defenda dezake: makilarekin jo, eta txirikila aldendu.
4. Txirikila ez bada biribilean/*torrian* sartu, jaurtitzaileen taldeak puntu



bat lortuko du, eta taldeko hurrengo jaurtitzailearen txanda izango da. Taldekide denek jaurti dutenean, talde aldaketa egingo da. Hori bai, txirikila *torrian* sartu bada, talde aldaketa une horretan bertan egingo da, eta puntua beste taldeak lortuko du.

5. Puntu gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du (adibidez, 10 puntu).

Iturria

Adineko hainbat lagunen testigantzak izan ditugu kontuan. Besteak beste herri hauetakoak: Eibar, Aretxabaleta, Eskoriatza, Legazpi eta Urretxu. Deba bailarako jolasteko modua ekarri dugu hona. Legazpin, jaurti aurretik jaurtitzaileak "kalderon!" egiten zuen oihu, eta beste aldekoek "jo eta bertan egon!" erantzun; Deba bailaran ez dugu esaera hori batu, baina kontatu digute *kalderonka* aritzen zirela eta polita iruditu zaigu oihu hori ere berreskuratzea.

Txirikiletan jolasak beste izen batzuk ere baditu: *txirikilan*, *txirikolan*, *txikolan*, *estrinka*, *pitxeka*, *kalderonka*, *kalderonketan*... Makila labur punta-zorrotzari *txirikila* edo *txikola* esaten zaio; luzeari, berriz, *galderoia*, *mazetia* edo *mazia*. Oso jolas ezaguna zen sasoi batean, neska-mutikoek batez ere Garizuma garaian jolasten zutena.



POTXOLOKA

Intxaurrak edo hurrak 'potxolo' edo zulo batera sartzea



Zer behar da?

Klariona, lurlean marra egiteko. Eta borobilak diren objektu txikiak (intxaurrak, hurrak, kanikak, gerezi hezurrak...) eta zulo bat: "potxoloa". Txapela ere erabil daiteke zulo moduan (ikus argazkian).

Nola jolastu?

Potxoloka jolasteko hainbat modu daude. Hona hemen sinpleenetako bat:


Kaniketan bezala: intxaurrak/hurrak lurlean egin dako zuloan sartzen saiatzea, hatzarekin bultzatuta edo airean jaurtita. Sartuz gero, beste jokalaria batzuei bidean geratutako intxaur/hurrak irabazten ditu. Txandaka egiten da, aldiko intxaur/hur bana jaurtitzen.

Beste jolas bat, pixka bat konplexuagoa, ume handixeagoentzat:

1. Txapel/txano bat erabil dezakegu "potxolo" moduan; lurlean jarriko dugu, eta hurrak bertara jaurti. Zaku forma eman, hurrak errazago sar daitezten.
2. Jokalari denek hur kopuru bera izango dute hasieran: adibidez 15 hur. Nahi beste jokalarik parte har dezakete.

3. Marra bat marraztu, potxolotik 2-3 pausora. Txandaka jaurtiko dituzte hurrak jokalariek handik potxolora (jaurtialdi bakoitzerako hustu egingo da). Hurrak esku bakarrekin jaurti behar dira, eskukada batean. Ez da beti hur kopuru bera jaurtiko.

Hauxe da araua: potxolora pareka sartu behar dira hurrak (2 edo 4); bestela, jokalariek bi hur galduko ditu (potxolora batean sar ditzakegu). Lehenengo,



POTXOLOKA

4 urte+

bi hur jaurtiko dituzte jokalariek. Gero hiru, ondoren lau... Bostera iristean, berriro birekin hasiko dira. Jaurti aurretik, abisua emango dute:

Bi-bi! (2 hur jaurti eta 2 sartu behar dira potxoloan)

Hiru-hiru! (3 hur jaurti eta 2 sartu)

Lau-lau! (4 hur jaurti eta 2 edo 4 sartu)

Bost-bost! (5 hur jaurti eta 2 edo 4 sartu)

4. Jaurti beharreko hur kopurua ez duen jokalaria erretiratu egingo da. Jokalari bakarra geratzen denean amaituko da jolasa: hura da irabazlea, eta baita hur gehien dituen ere! Aukera bat: hurrak zuritu eta denen artean jatea.



Iturria

Hainbat lekukok eman digute jolas honen berri, besteak beste Eskoriatzan, Eibarren, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin. Bereziki Elorrioko Pantxi Treviñoren azalpenak hartu ditugu aintzat jolas hau proposatzeko. Intxaur eta hur sasoiko jolasa da: umek "potxolo" bat egiten/bilatzen zuten, eta hara jaurtitzen zituzten. Jolas honek hainbat izen ditu, herrian herri desberdinak: *potolo*, *potxola*, *txolo*, *potxi*, *botxo*, *potxo*, *txitxilinpotxo*, *txikotxa*... Eskoriatzan *potxolo* jaso dugu, *potxoloka* jolastea. Intxaurrak eta hurrak kaniken aurrekariak dira.



KASTORREAN EDO KRINKETEAN

Intxaurrak lurrean ilaran jarrita egiten den jolasa




Zer behar da?

Intxaur mordoxka eta hurra bat. Eta klariona, lurrean marrazteko.

Nola jolastu?

1. Bi marra zuzen marraztu lurrean, bi errail, klarionarekin. Elkarren paralelo izan behar dute. Bi marren artean bi-hiru pausoko tarte egon daiteke.
2. Hasi aurretik, intxaurrak banatu behar dira. Jokalari denek intxaur kopuru bera izango dute (demagun, 5).


3. Jaurtitzen nor hasiko den erabakitzeko, lurrean marraztutako marra erabili. Jokalari denek intxaur bana jaurtiko dute, eta marra ahelik eta gertuen geratu behar da intxaurra, baina pasatu gabe. Gertuen uzten duena izango da jaurtitzen lehena.
4. Intxaurrak ilaran jarri, marren gainean. Ilararen erdian *Kastor* jartzen da, hurra bat; aldamenetan intxaurrak. Elkarrengandik nahiko gertu egon behar dute intxaurrek, baina elkar ukitu gabe. Jokalari bakoitzak intxaur bat jarriko du (jokalari gutxi badira, bakoitzak bi).



KASTORREAN EDO KRINKETEAN



5. Jokalariak beste marraren atzean jarriko dira, eta intxaur bana jaurtiko dute, txandaka. Helburua ilarako intxaurrek jo eta marratik kanpo uztea. Hala, jokalariak marratik ateratako intxaur hori irabaziko du (bestela, jaurtitako intxaurrea galduko du: lurtean geratuko da). *Kastor* (hurra) marratik ateraz gero, ilarako intxaur denen jabe egingo da. Berrito jarri beharko dira intxaurrek ilaran (bakoitzak bana edo bina).
6. Intxaur denak galtzen dituen jokalaria erretiratu egingo da. Aurkari gabe geratzen denak edo intxaur gehien dituenak irabaziko du. Puntuetara ere jolas daiteke: ilaratik ateratako intxaur bakoitzeko puntu bat; *Kastor* (txikia) ateraz gero, hiru puntu. 10 puntura iristen dena irabazle.



Iturria

Birla edo bolo jokoaren antzeko jolasa. Antzuolan egindako mahainguru bateko lekukotasunak izan ditugu kontuan, eta Amorebieta-Etxano, Muxika eta Aulestiko adinekoen testigantzak ere bai.

Jolas honek hainbat izen ditu: *krinketian* (Antzuola), *kastorrera* (*kistorrera*, *kastorran*, *kastorrian*...), *txistiñera*, *txistorrera*, *intxaurreta*... Erdiko fruitutxoa, txikiena (hurra normalean): *kastor*, *kistor*, *kaixtor*, *txistor*, *katxine*, *txakiña*, *txistiñe*, *kiskiñe*, *katxorra*... Toki batzuetan intxaur handi borobilenek, ustez pilota lanerako onenak direnek, ere izena dute: Antzuolan *tartakaiñua* esaten diote. Beste fruitu batzuekin ere jolastu daiteke, eta baita fruituen hezurrekin ere.



PUNTA ALA BURU?

Koloretako burudun orratzak eskuan gordetzea



6 urte+

Zer behar da?

Koloretako burua duten orratzak. Orratzen orde egurrezko txotxak erabiliz gero (punta bat margotuta), txikiagoentzat ere egokia da (3 urte-tik aurrera).

Nola jolastu?

1. Umeak binaka jarriko dira. Ume bakoitzak orratz kopuru bera izango du (adibidez 5).
2. Umeetako batek orratz bat gordeko du eskuan, ukabila itxita, eta besteak orratza nola dagoen asmatu behar du: gora begira ala behera begira (punta ala buru).
3. "Punta ala buru?", galdetuko du ukabila itxita duenak. Eta asmatu behar duenak bietako bat esango du: adibidez, "Punta!". Eskua irekitzean orratzak punta gora begira baldin badauka, asmatu du. Berarentzat da orratza.



4. Bi jokalarietako bat orratzik gabe geratzen denean bukatuko da jolasak.

Posible da beste jolas batzuk egitea ere: orratza bi eskuetako zeinetan dagoen asmatu behar izatea. Edo aldiko orratz bat baino gehiago ezkutatu, eta zenbat gorde dituzten asmatzea edo orratz horiek "punta ala buru" dau-den asmatzea.

Iturria

Elgoibarko Miren Vallejoren azalpenetan oinarritu gara. Garai batean ohikoa zen arropa etxean jostea, eta etxe guztietan izaten ziren orratzak. Koloretako burua zutenak erakargarriak ziren umeentzat, eta jolasak asmatzeko bidea ematen zuten.



ORRATZETAN

Orratzei hatzarekin bultza eginez egiten den jolasa



6 urte+

Zer behar da?

Koloretako burua duten orratzak. Orratzen ordeztotxak erabiliz gero (ikus argazkian), ume txikiagoekin ere egin daiteke (3-4 urtetik aurrera).

Nola jolastu?




1. Umeak binaka jarriko dira. Zotz eginda egin ditzakete bikoteak; ikus *Arriola-marriola* kanta-jolasa.
2. Lurrean egiteko jolasa da (mahai baten bueltan eserita ere egin daiteke). Bakoitzak orratz bat ipiniko du lurrean (edo mahai gainean). Ume bakoitzak orratz kopuru bera izango du (adibidez 5).
3. Lortu behar dena: orratzen puntak gurutzatzea. Nola? Kanikekin bezalaxe: hatz batekin bultza eginda, txandaka. Puntak guru-

tzatzea lortzen duenarentzat izango dira bi orratzak (txotxekin, berriz, aski da puntak punta ukitzea).

4. Noiz bukatzen da jolasa? Bi umeetako bat orratz gabe geratzen denean.

Iturria:

Bereziki Eskoriatzako Mari Karmen Pagaldaireren eta Elgoibarko Miren Vallejoren azalpenak izan ditugu kontuan. Jolas honi *orrazzetan* egitea esaten zaio, eta baita *orrazz-orrazka* edo *alfilerka* ibiltzea ere.



TORTOLOSEKIN JOLASEAN

Tortolosak arkumeen hanketako hezurak dira: bakoitzak bi ditu, atzeko belau bakoitzean bana; ardiarenak edo ahariarenak ere izan daitezke.

Dadoen aurrekariak dira, lau alde desberdin dituztelako. Oso antzinatik jolasten da tortolosekin, munduko toki askotan. Antzinako Grezian eta Erroman, esate baterako. Grezian *astragalo* deitzen zieten, eta etorkizuna iragartzeko ere erabiltzen zituzten (*astragalomancia*).

Tortolosetan jolasteko, pilotatxo bat edo kanika bat erabiltzen da. Pilotatxoa gora bota eta berriz hartu behar da, baina bitarte horretan tortolosekin jolastuz.



Guk bi proposamen ditugu, zailtasun maila diferentekoak (umeen adinaren arabera):

Tortolosak hartzea. Pilota airean dagoen bitartean, tortolosak hartzea, banan-banan.

Tortolosak jiratzea (zailagoa). Pilota airean dagoen bitartean, alde jakin batera begira dauden tortolosak hartzea, eta besteak jiratzea, tokatzen den aldera begira jartzeko.

Tortolosek hainbat izen dituzte. Herriaren arabera, desberdin deitzen zaie: *tortolisak*, *tortolatxak*, *asakasak*, *sakak*, *sakaponak*, *sakalaponak*, *aponak*, *txarpak*, *kaloak*, *kaiok*, *unetakoak*, *kurkuluxak*, *tabak* (gaztelaniatik hartua)...

Hauk dira Debako bailaran jaso ditugun izenetako batzuk: Aretxabaletan *tortolosak* esaten zaie: *tortoliska* ibiltzea. Eibarren, *Tortolisak* edo *aponiak*

(baita *asajietan egitea* ere). Elgoibarren *sakaponak* izena ere jaso dugu. Arrasaten eta Aramaion *asakasak*, Oñatin *sakaponak*...

Tortolosen aldean izenak ere aldatu egiten dira toki batetik bestera.

Gaur egun plastikozko tortolosak saltzen dituzte, koloretakoak. Horiek erabil ditzakegu jatorrizko hezurren ordeaz.



Aldeen izen hauek erabiliko ditugu guk

TORTOLOSAK HARTZEA

Pilotatxoa airean dagoen bitartean tortolosak hartzea



6urte+

Zer behar da?

Pilotatxoa (edo kanika) eta tortolosak, betikoak edo plastikozkoak; harritxo borobilduak ere erabil daitezke.

Nola jolastu?


1. Lau-bost pertsonako taldeak osatu, eta lurrean eseri, biribilean.
2. Bost tortolosarekin/harritxorekin jolastuko dugu. Lehenengo jokalariak tortolosa denak hartu, eta dadoen modura botako ditu lurrera. Ondoren, pilotatxoa gora bota, eta airean dagoen bitartean esku horrekin tortolosa bat hartuko du eta segidan bueltan datorren pilota. Pilota berriz bota, eta bigarren tortolosa hartuko du. Eta berdin hurrengoekin ere.

3. Huts egiten badu, hurrengo jokalariaren txanda izango da.
4. Tortolosa guztiak hartzea lortzea da erronka. Denak ez direnez esku bakarrean kabitzen, posible da behin tortolosa hartuta, beste eskura pasatzea.

Hartzeaz gainera, tortolosen jolaserako jiratzea ere ezinbestekoa da. Ikus hurrengo jolasa.

Iturria:

Hainbat lekutako adineko emakumeek eman digute tortolosei buruzko informazioa. Besteak beste Arrasate, Eibar, Antzuola, Mañaria, Durango, Orio eta Hernani.



TORTOLOSAK JIRATZEA

Pilotatxoa airean dagoen bitartean tortolosak jiratu eta hartzea

Zer behar da?

Tortolosak (plastikozkoak saltzen dituzte) eta pilotatxoa (edo kanika).

Nola jolastu?

1. Jokalari denak lurrian eseriko dira, biribilean, talde txikiak osatuta.
2. Bost tortolosarekin jolastuko dugu. Tortolosek lau alde dituzte:

Saka (etzanda, zuloarekin)
Pon (etzanda, zulo gabe)
Kulo (tente, zuloarekin)
Karne (tente, zulo gabe)

Tortolosen aldeen ordena zehaztuko da: zein aldetara jarri behar ditugun tortolosak. Horretarako, tortolosa bat bota: zein aldetara geratzen den, horrelaxe jarri behar dituzte tortolosa denak.



3. Lehenengo jokalaria bost tortolosak hartu, eta dadoen modura botako ditu, erabakitako aldearen ize-na (adibidez "Kulo!") esatearekin batera. Zein aldetara geratu diren begiratu, eta aurrez erabakitako aldetara begira jarri beharko ditu denak (adibidearekin jarraituz: denak *Kulo* aldera). Horretarako, pilotatxoa gora bota, eta airean dagoen bitartean, esku horrekin tortolosa bat mugituko du, alde egokira begira jartzeko. Pilota berriz bota, eta gauza bera egingo du oker dauden beste tortolosekin, banan-banan. Jiratzeko ahalegin bakoitzean, tortolosak zenbatzen joango gara:

Kulo (edo dena delakoa:
Pon, *Saka*, *karne*) bat!
Kulo bi!
Kulo hiru!
Kulo lau!
Kulo bost!

TORTOLOSAK JIRATZEA



4. Huts eginez gero, hurrengo jokalaria ren txanda izango da.
5. Tortolosa denak aurrez erabakitako aldera begira jarri ondoren, bukatzeko, denak banan-banan hartu. Ikus aurreko jolasa: Tortolosak hartzea. Denak jiratu eta hartzea lortzen duena txapeldun!

Beste aukera batzuk, tortolosekin trebatzen doazenentzat:

Tortolosak lau aldeetara begira jarri, aurrez erabakitako hurrenkeran (adibidez, 1. *Kulo*, 2. *Saka*, 3. *Pon* eta 4. *Karne*). Lehenengo denak *Kulo* aldera jarri; hori lortuz gero, denak *Saka* bihurtu, ondoren *Pon* eta bukatzeko *Karne*).

Hauxe da modu tradizionala, ohiko jolasteko modua. Tortolosak lau aldeetara begira jartzeara (au-

rreko aukera) baina aldi berean jiraturaz eta hartuz: bat jiratu, eta aurrez jiratutako beste bat hartu, pilota airean den bitartean.

Iturria:

Hainbat herritako emakumeen testigantzak izan ditugu aintzat: Arrasate, Antzuola, Aretxabaleta, Legazpi, Aulesti, Durango, Mañaria, Lezo...

Tortolosen lau aldeek ez dituzte izen berak toki guztietan. Debagoienean bertan izen desberdinak jaso ditugu: *Saka* edo *Asakas*, *Pon* edo *Pones*, *Aldar*, *Kuku* edo *Kulo* eta *Karne* edo *Karnes*. Ezagunenak iruditu zaizkigunak aukeratu ditugu. Eibarren, aldean izenak honakoak dira (*Eibar aldeko hiztegia*): *Putzasaje*, *Bixak*, *Hirurak* eta *Erregiak*.



TXINGOAN JOLASEAN

Txingo, *txingoan* edo *txingoka* ibiltzea: oin bakar baten gainean saltoka ibiltzea, bestea airean edukita. Hiztegietan datozen sinominoak (Labayru, UZEI eta Harluxet): *txangika*, *xingilka*, *oinka-oinka*, *kisketean*, *intxintxorrean*, *trinkitin*, *xingilika* eta *xingili*.

Txingoka egiten diren bi jolas jaso ditugu **Ahotsak.eus** proiektuan. Bietan zenbakiak eta laukiak marrazten dira lurrean, baina jolas bakoitzak bere berezitasunak ditu:



oinarekin zapaldu. Lurrean marraztutako laukiek gurutze forma hartzen dute, eta gurutzea sortzen den lekuan bi

- **Harri-harrika:** Txingo jolas ezagunena. Objektua -harri txiki bat, normalean- eskuarekin jaurtitzen da lauki barrura: lehengo 1 zenbakira, gero 2.era, ondoren 3. era... horrela zenbaki guztiak igaro arte. Txingoan joanda batu behar da harritxo, aldiro-aldiro, eta bidean ezin dira laukietako marrak oin

hankak jartzen dira lurrean: lauki bakoitzean oin bat. Buelta emateko lekuan atsedeen-lekua egon daiteke.

- **Txingor-gainean edo txindurrika:**

Objektua -kaxa biribil zapal bat, normalean- 1 zenbakian ipintzen da, eta handik aurrera ostiko txikiak eman ez eraman behar da, zenbakiz zenbaki. Kaxa ezin da marren gainean geratu, eta oinarekin ere ezin da marrarik zapaldu. Lurrean marraztutako laukiek ez dute gurutze formarik, eta bukaeran atsedeen-lekua dago, buelta ematen den tokian.



Hainbat izen erabiltzen dira txingo jolasak izendatzeko. Deba bailaran *txingoka* edo *txingoan* izenez gainera, hauek ere jaso ditugu: Aretxabaletan *harri-harrike* eta *txantxikurke*, Elgoibarren *txingor-gaiñian* (edo *txingorriñian*), Bergaran *txindurrika* eta *txantxirrika*, Eskoriatzan *txantxixuske*, Antzuolan *txintxurruka*, Arrasaten *losa-losaka* eta *hanka-koka*...

HARRI-HARRIKA EDO TXINGOKA

Harritxo bat jaurti eta txingoka egiten den jolasa



6 urte+



Zer behar da?

Klariona eta harritxo bat.

Nola jolastu?

1. Klarionarekin laukiak marraztu lurrean (gurutze bateko edo biko egitura osa daiteke, lauki gehiago edo gutxiago jarrita; ikus 28 orriko marrazkia). Lauki bakoitzari zenbaki bat jarri.
2. Harri bat jaurti, eta marra jakin batetik gertuen uzten duena izango da jolasten lehenengoa.
3. Txingoka (hanka bakarrarekin) egin beharreko jolasa da. Banaka

egiten da, txandaka. Lehenengo jokalaria harritxo lehenengo laukitxora botako du. Harria laukitxo barruan geratzen bada (marrarik ukitu gabe), jokalaria hori hasiko da jolasten.

4. Hanka baten gainean taulaz taula saltoka joango da jokalaria, txingoka (gurutzea sortzen den tokian izan ezik: han hanka bakoitza zenbaki batean jarriko du) eta marrarik zapaldu gabe. Buelako bidea egitean, bigarren laukian dagoenean, makurtu eta harria hartuko du 1.go laukitik, hanka bakararekin betiere.
5. Bide guztia ondo eginez gero, jokalaria harria bigarren laukira botatzeko aukera izango du. Eta harri hori hartzea lortuz gero, 3.era jaurti eta hura hartzekoa. Zenbaki guztiekin egin beharko du gauza bera. Harria ez bada dagoen laukian erori, hanka gainean ibiltzean marrak zapalduz



gero edo txingo egiteari utziz gero, txanda hurrengo jokalaria izango da.

6. Zenbaki denak egiten dituenak irabaziko du, ibilbidea osatzea lortzen duenak.

Iturria:

Txingo jolasik ezagunena da. *Txingoka* diogunean, normalean jolas honi buruz ari gara. Besteak beste Aretxabaleta, Aramaio eta Arrasateko adinekoen testigantzak izan ditugu kon-tuan.



TXINGOR-GAINEAN EDO TXINDURRIKA

Objektu bat zenbakiz zenbaki eramatea, txingoan

6 urte+

Zer behar da?

Klariona eta objektu bat. Kaxa zapal biribil bat da egokiena, baina harri zapal bat ere erabil daiteke. Kaxak pisu pixka bat izatea komeni da.

Nola jolastu?

1. Klarionarekin laukiak marraztu lurrean (ikus 28 orriko marrazkia). 7 edo 9 lauki izan daitezke. Lauki bakoitzari zenbaki bat jarri.
2. Objektua lehenengo laukitxoan ipini, 1 zenbakian.
3. Txingoka (hanka bakarrarekin) egin beharreko jolasa da. Bana-ka egiten da, txandaka. Jokalariak objektuari ostiko txikiak emango dizkio, eta laukiz lauki eramango du.
4. Objektua ez bada dagokion laukian geratu (edo tarteko marra baten gainean geratu bada) edo jokalaria txingo egiteari utzi badio

(hanka lurrean jarri badu), txanda hurrengo jokalaria izango da. Buelta emateko tokian, atsedendekuan, posible da bi hankak lurrean jartzea.

5. Ibilbidea osorik egiten duenak irabaziko du.

Iturria:

Txingo jolas hau ez da *harri-harrika* bezain ezaguna, baina hala ere hainbat herritan jaso dugu. Elgoibarraren eta Bergaran, esaterako. Herri batzuetan bietara jolasten zuten. Elgoibarren *txingor-gainian* edo *txingorriñian* esaten zioten jolas honi eta baita *Primeretan* ere (izan ere, gaztelaniaz *A primeras* esaten zioten); Bergaran, berriz, *txindurrika* aritzea. Lustre edo betun kaxak erabiltzen zizuten, lurrez beteta (arinegiak ez izateko). Zapatei distira emateko erabiltzen zen betuna, eta umeeek kaxa hutsa gorde egiten zuten.





KANTA JOLASAK





KEINUKA

Ume txikiekin egiteko kanta-jolasak bildu ditugu atal honetan, keinuetan oinarritzen direnak. Jolas hauek urtebetetik gorako umeekin erabil daitezke, haiek al-tzoan hartuta. Kanta-jolasa ikasten dutenean, beraiek bakarrik egin dezakete: abestia kantatu, eta keinuak egin.

Lau kanta-jolas jaso ditugu, eta lauretan animaliak aipatzen dira: idia, ahuntza, txakurra, azeria, oiloa, txakurra, katua... keinuak egiteko aproposak denak ere.

BINBILI-BONBOLO

Animaliak aipatzen dituen haur kanta



0 urte+



Binbili bonbolo
sendo lo
akerra Frantzian balego
akerrak kanta,
idiak dantza,
ahuntzak danbolina jo!



Nola erabili?

Ume txikiekin abesteko moduko abestia da, keinuak egiteko aukera ematen duena. Abestu ahala, umeek keinuak egin ditzakete: "idiak dantza" esaten denean besoak jaso, dantzan bezala, eta "danbolina jo" esaten denean, esku batean danbolina eta bestean makila balute bezala egin.

Ume guztiek batera abes dezakete, eta elkarri begira keinuak ere errazago ikasiko dituzte.

Ume txikia altzoan hartuta edo sehaska kanta moduan ere erabil daiteke.

Iturria:

Kanta herrikoia da. Besteak beste Arrasaten, Elgoibarren eta Bergaran jaso dugu. Abestiarren bigarren lerroko hitzak bi erataria jaso ditugu: "Zein da lo?" eta "sendo lo". "Binbili-bonbolo" onomatopeia ere bada, zabuka edo kulunkan esan nahi duena. Kanta hau sehaska kanta moduan ere erabiltzen da.



TXAKURTXUA

Umea altzoan hartuta edo keinuka egin daitekeen kanta



0 urte+



*Txakurtxua txau-txau-txau
Txerritxua kurrin-kurrin
Txilibituxua txiruliruli
A ze neskamotza/mutilmotza nauan ni!*

Nola erabili?

2-3 urtetik gorako umeek abestia kanta-tu eta keinuak egin ditzakete, kanta honek horretarako aukera ematen du eta: txakurra, txerria eta txilibitua keinuka egin ditzakete.

Txikiagoekin, altzoan hartuta egin daiteke (helduak umeari kantatu).

Iturria:

Donostiako Xerafina Iriarteri jasotako kanta da, antzinakoa; umetan luran bizi izan zen, eta han ikasi zuen kanta.



KATARRAMIXON

Laztanak emanaz egiten den elkarrizketa erako kanta



Urte 1+



Nola erabili?

Umeak txikiak direnean, altzoan hartuta egin daiteke (umea aurrera begira jarrita). Hasieran, umeak ikasi arte, helduak umearen eskuak hartzen ditu eta eskutxoekin aurpegia laz-tantzen dio, abestia kantatuz. "Xapi-xapi-xapi" esaten denean, katwarena egiten da: aurpegian hatzekin laz-tandu, baina lehen baino azkarrago.

Behin umeak kanta ikasten duenean, heldua eta umea parez pare jar daitezke (umea altzoan, helduari begira), eta norberak bere aurpegia laz-tandu abestia jarraituz.

- Katarramixon
- Nun ixen?
- Gaztelun
- Zertan?
- Gaztaia ta ogixa ekartzen
- Nun itzi?
- Bentanan
- Nork jan?
- Katuak
- Niri bapez!
- Xapi-xapi-xapi-xapi!



Ume handixeagoek binaka jarrita egin dezakete. Denek batera kanta dezakete abestia, eta batak besteari aurpegia laz-tandu.

Iturria:

Arrasateko Begoña Arregiri jasotako kanta-jolasa da.



ARRE-ARRE MANDAKO

Altzoan salto eraginez egiten den kanta



Urte 1+



Arre-arre, mandako

Bixar Tolosarako

Etzi Iruñarako

Handik zer ekarriko?

Zapata ta gerriko!

Norendako?

Norendako?

*Mikelendako! (umearen izena)
/ Gure umetxuendako!*



Nola erabili?

Umea altzoan hartuta egiteko jolasa da, kantatu ahala umeari salto eragitekoa; heldu batek (ala ume nagusiago batek) txikia altzoan hartuko du, eta kantatu egingo dio, belau biak saltoka mugituz. Batzuek altzoan izan beharrean hanka bakarraren gainean ipintzen dute umea, esku bietatik helduta, eta oin bat gora eta behera mugitu.

Umeak berak panpin batekin ere egin dezake, handixeagoa denean: berak kantatu, panpina altzoan hartuta edo oinaren gainean jarrita, gora eta behera mugituz.

Iturria:

Arrasateko Ana Mari Axperen azalpenak izan ditugu kontuan, baina kanta-jolas hau oso ezaguna da, eta hainbat herritan jaso dugu: Aramaion, Oñatin, Antzuolan, Elgoibarren, Eibarren, Andoainen, Elorri... Aldaera denak antzekoak dira. "Zapata eta gerriko" esan beharrean, "zapata eta soineko" ere jaso dugu. Donostiako Xerafina Iriartek beste bukaera bat ematen dio kantari, umearen izena esan beharrean: "Aliza, aliza, Periko!"



KUKURRUKU

Elkarrizketa erako kanta-jolasa



Nola jolastu?

Ume txikiekin (2-3 urte), altzoan hartu eta umea gora eta behera erabili, kantatu bitartean.

Handiagoekin (5 urtetik aurrera), umeak bi taldetan banatu eta elkarrizketa egin dezakete, parez pare jarrita. Elkarrizketa hori antzeztu egingo dute, keinuak eginez, eta gora eta behera mugi daitezke (orain zutik, orain makurtuta; hizketan daudenean, zutik).

- Kukurruku!
- Zer duzu?
- Buruan min!
- Zeinek egin?
- Azeriak
- Azeria non?
- Errotapian
- Zertan?
- Garia biltzen
- Garia zertarako?
- Oiloari emateko
- Oiloa zertarako?
- Arrautzak jartzeko
- Arrautzak zertarako?
- Frijiduta jateko!



KUKURRUKU



2 urte +

Iturria:


“Kukurruku” kanta-jolasa antzinakoa da, eta hainbat aldaera ditu. Herri askotan jaso dugu: Eskoriatza, Arrasate, Antzuola, Bergara, Andoain, Amasa-Villabona... Jolasteko bi modu daude, umeen adinaren arabera:

1. Ume txikiak altzoan hartuta kantatzen zuten (normalean helduek), umea gora eta beheara mugituz. Arrasateko Arantxa Iregiri eta Bergarako Bittori Aranbururi jasotako artek nahasketa bat egin dugu guk, eta kutsu erlijiosoa kendu diogu.

2. Umeek gurdi gainera igota egiten zuten jolasa ere bazen, baserri girokoa. Ume bat pertikara igotzen zen, eta besteak azpian egoten ziren, burkoltzan, kontrapisua egiten. Elkarrizketa izaten zuten, pertika gora eta beheara zera-biltela. Gero, beste ume bat igotzen zen pertikara. Jolas arriskutsua izan zitekeen pertika gainekoarentzat, jolasaren bukaeran gurdia denek batera kolpera uzten zutelako, eta baserri batzuetan debekatu egiten zieten gurdian jolastea.

Elkarrizketa luzeak zein laburrak, denetik jaso dugu. Arrasateko Begoña Arregiren baserrian aldaera hau erabiltzen zuten:

- *Kukurruku! (pertika gainekoak)*
- *Zer behar duzu?*
- *Txokolatea (pertikan zegoenak nahi zuena erantzuteko aukera zuen)*
- *Norentzako?*
- *Mikelendako (pertikakoak gurdian zegoen ume baten izena esaten zuen, eta hura zen pertikara igotzen hurrengoa).*





ESKU-JOLASAK

Atal honetan eskuekin egiten diren jolasak batu ditugu, txaloka egiten diren jolasak ez ezik baita bestelakoak ere: atzamarren izenak ikasteko kanta-jolasa, eskuak mugitzeak... Izan ere, eskuek eta hatzek jolasarako aukera handia ematen digute, ume-umetatik.

Lau txalo-jolas proposatzen ditugu. Jatorrian ez ziren esku-jolasak, antzinako kantak baizik; ikastetxeko jolastokian bihurtu dituzte esku-jolas, biziberritzeko. Beharra ikusten baitzuten: umeek zerabiltzaten txalo-jolas gehienak gaztelaniazkoak ziren.

MARU-MARUTXO

Eskuak mugituz egiten den kanta-jolasa



0 urte+



*Maru-marutxo
Eragiozu
eskutxo horri
Behin batari ta
behin bestiari*

Nola jolastu?

Umea oso txikia denean, helduak kantatuko dio, eta umeak eskutxo mugituko du. Kanta ikasten duenean, umeak berak kantatuko du, eskutxoak mugituz: lehenengo bata eta gero bestea.

Iturria:

Kanta hau antzinakoa da. Guk Elgoibarko Miren Vallejori jasotakoa erabili dugu. Lezoko Mari Tere Pagolari antzeko beste aldaera bat jaso diogu:

*Eragiozu eskutxoari,
eskutxo eder galant horri.
Behin batari eta gero besteari,
eragiozu eskutxoari*



ATXIA-MOTXIA

Elkarri hatzak harrapatzeko jolasa



2 urte+



*Atxia-motxia, pirulin pan,
nere semie errotan
Errota txikiñien klin-klan
Botikario, kalendario,
hemen etxien zenbat hatz?
X (zenbaki bat, batetik hamarrera) hatz!
Kosk ala min?*

Nola jolastu?

1. Umeak binaka jarriko dira, lurrean eserita. Umeetako batek bi eskuak lurrean jarriko ditu: zabalik, esku-ahurra beheratz begira.

2. Umeek abestia abestuko dute, batek besteari banan-banan atzamarra ukitzen dizkion bitartean (bestea gelditi egongo da).
3. Abestiaren bukaera aldera, "hemen etxien zenbat hatz?" galdetuko dio hatzen jabeari. Eta hark zenbaki bat esan beharko du, 1etik 10era, nahi duena. Adibidez, "hamar hatz!". Orduan, hatzak kontatzen hasiko da beste umea, banan-banan ukituz. 10 zenbakira iristen denean, beste umeari hatzen bat edo eskua harrapatu beharko dio, horixe baita jolasaren helburua.
4. Hatzen bat harrapatuz gero, "Kosk ala min?" galdetuko dio hatzaren jabeari, eta hark bietako bat esan behar du. "Kosk" esaten badu, kopetan kolpe txiki bat jasoko du, eta "min" esaten badu, esku gainean atximurkada.

Umeak badira elkarrekin jolasean dabiltzanak, 4. puntua kendu egin daiteke. Ume txikiarekin jolasean dabilena heldua denean, berriz, ez dago "Kosk ala min?" egiteko arazorik, helduak bere indarra ondo neur baitezake. Umeek sustoa hartzen dute, minik ez, eta hori gustatu egiten zaie.

Iturria:

Debagoienean jaso dugu. Izenak berak aldaerak ditu: *Atxien-motxien* eta *Atxia-motxian* ere deitzen diote. Letra ere pixka bat aldatzen da herri batetik bestera. Arrasateko Leandra Otxoari jasotakoa erabili dugu guk.



ATZAMARREN IPUINA

Arrautzaren jolas-ipuina



Urte 1+



*Honek arrautzia ekarri (hatz txikiari heltzen)
honek sua egin (hatz nagia, bigarrena)
honek zartaginian ipiñi (hatz luzea)
honek probau (hatz erakuslea)
ta honek, txarri tripionek/potoluonek,
dana jan! (hatz lodia)*

Nola jolastu?

3 urtetik aurrerako umeek beraien kasa egin dezakete. Ume guztiek batera konta dezakete arrautzaren ipuina, hatzak erakutsiz. Lehenengo hatz txikia, gero nagia, segidan luzea, ondoren erakuslea eta azkenik lodia. Hatzen izenak ikasteko ere baliatu daiteke jolas hau.

Ume txikiagoekin ere egin daiteke, umea alizoan hartuta eta hari hatzak ukituz, umeak berak ikasi eta bere kabuz egitea lortu arte.

Iturria:

Atzamarren jolas hau aspaldikoa da, eta hainbat aldaera ditu, denak ere antzekoak. Guk bereziki Arrasateko Bixente Pagoaga eta Faustina Galdosen aldaerak izan ditugu kontuan. Arrautza erosi eta jan bitartekoak kontatzen dira beti ipuinean. Hona beste aldaera bat, Andoaingo Ixiar eta Kristina Mendikute ahizpei jasoa:

*Honek txotxak bildu,
honek sua piztu,
honek arrautza prejitu,
honek pixka bat probatu / honek gatza bota,
eta honek dena jan! Dena jan!*



LEHENENGOTXO HORI

BIZKORRA LUZEA NAGIA


TXIKIA

Atzamarren izenak ikasteko kanta-jolasa



0 urte+

LODIA



*Lehenengotxo hori,
punta bihatz hori,
beste guztien artian
txikia da hori.
Larala lara...*

*Bigarrentxo hori,
punta bihatz hori,
beste guztien artian
nagia da hori.
Larala lara...*

*Hirugarrentxo hori,
punta bihatz hori,
beste guztien artian
luzia da hori.
Larala lara...*

*Laugarrentxo hori,
punta bihatz hori,
beste guztien artian
bizkorra da hori.
Larala lara...*

*Bosgarrentxo hori,
punta bihatz hori,
beste guztien artian
lodia da hori.
Larala lara...*



Nola jolastu?

Ume guztiek batera kanta dezakete, hatzak erakutsiz: lehenengo hatz txikia, gero nagia, segidan luzea, ondoren bizkorra eta azkenik lodia.

Ume txikiagoekin ere egin daiteke, umea altzoan hartuta eta hari hatzak ukitutuz, umeak berak ikasi eta bere kabuz egitea lortzen duen arte.

Iturria:

Elgoibarren eta Bergaran jaso dugu. Jatorrizko bi aldaerak hitanoz daude ("duk hori"), eta guk zutanoz jarri dugu ("da hori"); hitanoz egin nahi izanez gero, txandaka egin daiteke: hatz batekin toka eta hurrengoarekin noka.



MARIGORRINGO

Eguraldia iragartzeko jolasa



2 urte+



*Marigorringo, zurigorringo/Amandre Gorringo
bihar zer egingo?*

Eurixa ala eguzkixa egingo?

Zer behar da?

Paperezko amona mantangorri bat. Ez da erraza benetakoak topatzea eta, gainera, ume hain txikiekin arriskuan egongo lirateke. Horregatik, hobe paperezkoak egitea. Papere gorriarekin egin ditzakete, puntu beltzak margotuta.

Nola jolastu?

Ume bakoitzak esku gainean papertxo gorri bat jarriko du (amona mantangorri baten itxura baldin badu, hobeto); listu apur batekin itsasi dezakete esku gainera. Behatz puntan jartzea da beste aukera bat.

Kanta kantatuko dute, eta gero putz egin. Papertxoan hegan ateratzen baldin bada, eguzkia egingo duen seinale. Bestela, ba euria dator.

Iturria:

Aspaldiko sinesmen baten arabera, amona mantangorriek eguraldia iragar dezakete. Umetako antzinako jolasa da animaliatxo hori esku artean hartu, eta eguraldiaren berri galdetzea. Amona mantangorriari hainbat erataria deitzen zaio: *marigorringo, amona gonagorri, katalingorri, marigorri, matxingorri/matxingorringo, amandre gorringo...* Arrasaten jasotakoa da proposatzen dugun kanta-esaeratoa. Beste aldaera hau ere jaso dugu, Hernanin:

Amona mantangorri, zeruan zer berri?

Zeruan berri onak, orain eta beti!

Aide mantangorri!



TXALO PIN TXALO

Txalo joz egiten den kanta-jolasa



Urte 1+



*Txalo, txalo
Txalo pin txalo
Katutxua
mizpira
gainian dago*

*Txalo, txalo
Txalo pin txalo
Txalo!*



Nola jolastu?

Kanta-jolas hau ume txikiekin egiten da. Helduak altzoan hartuko du umetxoa (aurrera begira), eskuak hartuko dizkio eta kanta kantatzearekin batera eskuekin txalo eginaraziko dio. Umeak berak kanta ikasi edo bere kabuz txalo egiten duenean, bere kasa utziko du. Orduan, helduari begira jarriko du umea (altzoan edo beste nonbait eserita), eta biek batera egingo dute txalo.

Ume handixeagoekin aukera bat umeak binaka jartzea da, eta ume batek besteari txalo eginaraztea (umeak parez pare jarri daitezke, belauniko, edo bestela bata bestearen atzean).

Iturria:

Guk aintzat hartu dugun aldaera Arrasateko Ana Mari Axpek kantatutakoa da, eza-gunena, baina aldaera asko dituen antzinako kanta da. Beste aldaera bat:

*Txalo, txalo,
txalo pin txalo
Txori txikia
kaiolan dago
Txalo, txalo,
txalo ta txalo
Txakur txikia
begira dago
Txalo!*



ANTONTXU ZARA ZU

Txalo-jolas bihurtutako antzinako kanta



4urte+

*Antontxu,
Antontxu zara zu
kuartillo ta erdigaittik
ohia saldu dozu
Aitta datorrenian, ian
Ama datorrenian, ian
etxetik kanpora
bialduko zaittu!
Aitta datorrenian, ian
Ama datorrenian, ian
etxetik kanpora
bialduko zaittu!*



Nola jolastu?

Umeak binaka jarriko dira, eta kantatu bitartean eskuekin egingo dute jolas, txaloka. Umeek beraiek asma deza-kete jolasa (heldu baten laguntzarekin).

Iturria:

Bergaran jaso dugu kanta hau, Maria Luisa Alberdiri. Baita Mañarian eta Erandion ere.



DINGILIN-DANGOLON

Txalo-jolas bihurtutako antzinako kanta



4 urte+



Nola jolastu?

Umeak binaka jarriko dira, eta kantatu bitartean eskuekin egingo dute jolas, txaloka. Umeek beraiek asma dezakete txalo-jolasa (heldu baten laguntzarekin).

Iturria:

Arrasateko Faustina Galdosi jaso genion. Bergarako Paula Alberdik beste aldaera baten berri eman zigun, oso antzekoa:

*Dingilin-dangolon mariña
beti honela bagiña
Beti honela izaterako
poltsia dugu ariña*

*Tringulo-trangulo mariña,
beti honelan bagiña.
Beti honelan izateko
poltsia dago ariña.*



EGURRETAN

Txalo-jolas bihurtutako antzinako abestia



4 urte+



Nola jolastu?

Umeak binaka jarriko dira, eta kantatu bitartean eskuekin egingo dute jolas, txaloka. Umeek beraiek asma deza-kete txalo-jolasa, helduren baten laguntzarekin.

Iturria:

Ondarroako Antigua Urbietari jasotako aldaera da proposatzen duguna. Beste herri batzuetan ere jaso izan da. Bergarako Paula Alberdiri jasotako aldaera:

*Aittaitta ta amama
juan ziran mendira,
aixkoria galduta
hasarretu ziran.*

*Aittaittak amamari
kopetatik tira,
amamak aittaittari
belarritik tira.*



*Aittitte ta amume
bixak egurretan*

*Aizkoria galduta,
bixak errixetan*

*Ai ai ai mutila,
txapela gorria*

*Ai ai ai neskatxa,
pañelo txuria*



KUKUARENA TXALOKA

Txalo-jolas bihurtutako antzinako abestia



4 urte+



*Aita/ama, nun egiten du
kukuak kabia?*

*Txantxangorri kabian,
lapurtuz tokia.*

Tralalala,

lapurtuz tokia.

Tralalala,

lapurtuz tokia.

Nola jolastu?

Umeak binaka jarriko dira, eta kantatu bitartean eskuekin egingo dute jolas, txaloka. Umeek beraiek asma dezakete txalo-jolasa, helduren baten laguntzarekin.

Iturria:

Donostiako Arantxa Lasari jaso genion kanta hau. Larrabetzuko Maria Elosegiri ere jaso diogu. Kanta herrikoia da, besteak beste Imanol Urbietta abeslariak kantatu izan duena.



SOKASALTOKOAK



Sokasalttoa antzinako jolasa da, eta mundu osoan ezaguna. Soka bat iza-tea aski da sokasalttoan jarduteko. Ba-karka eragin diezaiokegu sokari, soka laburra baldin bada, eta bi lagun-en artean luzea denean.

Jaso ditugun sokasaltoko kanta-jolasak ez dira asko, bi arrazoiengatik: elkar-ritzketatu ditugunetako asko umetan gazteniaz ibiltzen ziren sokasalttoan; es-kolan jolasten zuten, atsedendian, eta ez zieten euskaraz egiten uzten. Beste lekuko batzuek, berriz, ez zuten abes-ten soka saltoka zebiltzanean. Zen-bakiak esaten zituzten, salto bakoitze-ko bat: bat, bi, hiru, lau, bost... Gehien irauten zuenak irabazten zuten.

HARIA MATAZA

Sokasaltorako antzinako abestia

4 urte+



*Haria, mataza, loria
Haria, mataza
Haria!
Haria, mataza, loria
Haria! Haria! Haria!...*

Zer behar da?

Soka luze bat eta leku zabal bat.

Nola jolasten da?

Bi lagunek sokari eragingo diote, eta guztiek batera kantatuko dute. Umeek txandaka egingo dute salto sokan, eta ahal den gehien irauin beharko dute saltoka.

Abestiaren bukaeran "haria" hitza errepikatzen da, eta sokari azkarrago eragingo zaio orduan, saltaginak huts egin arte.

Iturria:

Sokasaltorako abesti hau aspaldikoa da. Guk Errenteriako Begoña Lizasoren ahotan entzun genuen, eta Lezoko Xebastian Agirrek ere erabiltzen zuen, umetan. "Loria" hitzaren inguruan, uste dugu "lodia" izango dela esanahia (toki bazuetan hala esaten da) eta ez "lorea": hari mataza lodia.



LIBIRI-LABERO

Ganaduzain egoten ziren umeek zerabilten kanta

4 urte+



*Lai labero
Libiri ta labero
Nun da ganauzaina?
Ganaua laboretan
eta eperra kantetan
Usue landetan
X (umearen izena) Etxeberriko
jira-jirabueltan!*

Zer behar da?

Soka luze bat eta leku zabal bat.

Nola jolasten da?

Bi lagunek sokari eragingo diote, eta guztiak batera kantatuko dute. Umeek txandaka egingo dute salto sokan, eta abestiari bukatu arte iraun beharko dute saltoka, sokan tratatu gabe.

Abestiaren une batean saltoka ari den umearen izena esaten da, eta une horretan umea jiratu egin behar da, salto egiteari utzi gabe. Jiratu eta sokatik aterako da, abestiaren bukaera da eta.

Iturria

Debagoienean jaso dugu baserri giroko kanta hau, ganaduzain egoten ziren umeek elkarri abesten ziotena. Jatorrian ez zen sokasaltorako. Behiren batek ihes egingo ziola ohar-tarazteko erabiltzen zuten, eta elkarri adarra jotzeko ere bai, ondoko zelaikoa erdi lo edo despistatuta ikusten zutenean. Hainbat aldaera jaso ditugu. Arrasateko Faustina Galdosi jasotakoa da proposatzen duguna, bukaera aldatuta. Hauxe da jatorrizko bukaera:

*Pedro Etxebarrikok (umearen izena eta baserriarena)
kaka fraketan!*



TXANTXURRILLO EDO TXANTXIBIRI



Kanta tradizionala, besteak beste sokasaltorako erabiltzen dena **4urte+**



*Txantxurrillo kamiñerok /
Txantxibiri Kaminok
ez dauka dirurik
Hiru alaba dauzka
ezkondu gaberik
Laugarrena semia,
kapote zaharrakin,
Konejua dirudi
bere bizarrakin
Txantxibiri-txantxibiri!...*



Zer behar da?

Soka luze bat eta leku zabala.

Nola jolastu?

Bi lagunek sokari eragingo diote, eta guztiek batera kantatuko dute. Umeek txandaka egingo dute salto sokan, eta abestia bukatu arte iraun beharko dute saltoka, sokan tratatu gabe.

Beste aukera bat: abestiaren bukaeran "txantxibiri" hitza esatea behin eta berriz, eta sokari azkarrago eragitea, umeak huts egin arte.

Umeen adinaren arabera, jolas konplexuagoa ere egin daiteke. Abestiaren une batzuetan soka gelditu egin daiteke, eta saltagina makurtu egin beharko da; gero, sokari berriz eragingo zaio eta saltoka jarraituko du; saltagi-

nak arreta handia jarri beharko du, noiz salto egin eta noiz makurtu jakiteko. Adibidez, bukaerako "txantxibiri" esaten hasten garenean, soka gelditu egin daiteke eta umea makurtu; eta ondoren, nahi dugunean, sokari berriz eragin, eta "txantxibiri" esaten jarraitu, baina sokari gero eta azkarrago eraginez, saltaginak huts egin arte.

Iturria

Antzinako abesti honek hainbat aldaera ditu. "Txantxurrillo Kamiñero" aldaera Tolosan jaso genuen, Maria Eugenia Uriarteren ahotik; sokasaltorako erabiltzen zuten, umetan. Mañariako Luzia Inzunzak, berriz, "Txotxo Arratixako" moduan ezagutzen zuen abesti hori bera. "Txantxibiri Kamino" moduan ere erabiltzen da.



ZOTZ EGITEKOAK



Askotan izaten da zerbaiterako zotz egiteko beharra: zerbait egin behar duena aukeratzeko (ona den zerbait baldin bada, hobeto), sariren bat edo oparixoren bat banatzeko, liburuxka honetako jolasak egiteko (nor hasi erabakitzeke, rolak banatzeko, taldeak egiteko)... Horrelako egoeretan erabil daitezke atal honetan batu ditugun zotz egiteko kanta hauek. Besterik gabe jolas moduan ere bai. Zotz eginda aukeraturako umea biribilaren erdian jar daitezke, eta horrela txandaka, ume guztiak parte hartu arte.

Zotz egiteko kanta-jolasak gauza positiboetarako erabiltzea komeni da, inor kanpoan uzteko baino gehiago. Garrantzitsua da umeek jolasarekin eta ondo pasatzearekin lotzea, eta ez baztertua izateko arriskuarekin.

ARRIOLA MARRIOLA

Zotz egiteko antzinako abestia



4urte+



*Arriola marriola
orratza zorrotza
Punta gaitza
hari txarra
Tira-bira
zirrin zarran
eta zast!*

Nola jolastu?

1. Asko baldin badira, umeek biribil bat osatuko dute (zutik ala lurrean eserita) eta ume bat erdian jarriko da. Umeak gutxi baldin badira, berriz, nahikoa da elkarren ondoan jartzea, eta beste umea haien parean, aurrez aurre.
2. Ume denek kanta kantatuko dute, eta umeetako bategainerako umeak banan-banan hatz erakuslearekin seinalatuko ditu, abestiaren erritmoa jarraituz. Abestia bukatzen denean, "zast" esatean, seinalatzen ari den ume hori izango da aukeratua. Zertarako? Biribilaren erdian jartzeko, adibidez.

Iturria:

Antzinako kanta da. Guk Arrasateko Arantxa Iregiri jasotakoa hartu dugu oinarri moduan. Hori bai, Antzuolan beste aldaera hau ere jaso dugu:

*Arriola, marriola,
kutxa lakama*

*Pipia torria zerzelin,
Kandelak kontuak errebikin,
Piñua pin, San Juakin,
Karatxo damatxo
txiki ta piiin!*



DON DON KIKILIKON

Zotz egiteko antzinako abestia



4 urte+



*Don Don
Kilikikon
Hortxe dator
Don Ramon
Saltsa pika
tortolika
Patinean
korrika!*

Nola jolastu?

1. Asko baldin badira, umeak biribil bat osatu-ko dute (zutik ala lurrean eserita) eta ume bat erdian jarriko da. Umeak gutxi baldin badira, berri-iz, nahikoa da elkarren ondoan jartzea, eta beste umea haien parean, aurrez aurre.

2. Umeak kanta kantatuko du, gainerako umeak banan-banan hatz erakuslearekin seinalatuz. Edo bestela denek kanta dezakete, eta umeak abestiaren erritmora seinalatu. Abestia bukatzen denean, "ka" esatean, seinalatzen ari den ume hori izango da aukeratua.

Iturria

Antzinako kanta da. Guk Arrasateko Begoña Arregiri jasotakoa hartu dugu oinarri moduan, baina bukarak berri usaina daukala iruditzen zaigu: jatorrizko bertsioan ez zela patinik agertuko, alegia. Kanta honen hainbat aldaera daude.

Beste aukera bat Antzuolan jasotako aldaera hau erabiltzea da:

*Din-don,
Trikilikon
Saltsa fika, tortolika
Deuson
Aittona Martzelon
krisk eta krask eta
Kaxkamelon
Hara bera tronpeta
hara kirikon*



DONA DONA KATONA

Zotz egiteko antzinako abestia



4 urte +



*Dona Dona Katona
Sutondoan aitona
Lepotik behera kutuna
A ze neska/mutil tuntuna
Zu kanpora!*



Nola jolastu?

1. Asko baldin badira, umeak biribil bat osatuko dute (zutik ala lurrean eserita) eta ume bat erdian jarriko da. Umeak gutxi baldin badira, berriaz, nahikoa da elkarren ondoan jartzea, eta beste umea haien parean, aurrez aurre.
2. Umeak kanta kantatuko du, gainerako umeak banan-banan hatz erakuslearekin seinalatuz. Denek batera ere kanta dezakete. Abestia bukatzen denean, "ra" esatean, seinalatzen ari den ume hori izango da aukeratu. Zertarako? "Kanpora" esaten du abestiak, eta ume hori biribiletik kanpo geratuko litzateke.

3. Ume kantariak kantatzen jarraituko du, eta banaka-banaka umeak kanporatzen joango da. Ume bakarra geratzen denean, horixe da jolasa irabazi duena.

Sariren bat edo opariren bat banatu behar denean erabil daiteke kanta hau. Seinaltutako umea biribilaren erdian ipintzea izan daiteke beste aukera bat. Hala, ume gehienak jarriko dira biribilaren erdian kantuan, txandaka.

Iturria

Oso kanta ezaguna da: zotz egiteari 'dona-dona egitea' ere esaten zaio, abesti honen eraginez. Guk Arrasateko Arantxa Iregiri jasotako aldaera da proposatzen duguna.



MUGIMENDUZKOAK

Atal honetan mugimendu gehien duten kanta-jolasak batu ditugu: harrapaketakoak, elkarri helduta edo biribilean egitekoak, eta baita dantza-jolasak

ere. Psikomotrizitatea lantzeko onak dira denak ere. Kanta-jolas hauek egiteko espazio zabala behar da, eta parke zein jolastokietarako dira aproposak.



GOAZEN BARATZERA

Ilaran jarrita egiten den kanta-jolasa



4 urte+



*Goazen, goazen baratzera
Han mirua ikustera
Perejila janda eta mirua etzanda
Jan ta jan ta jan...
-Atzeko marikitaaaa
-Zer nahi duzu, nagusi?
-Mirua zer da: hilik ala bizirik?
-Bizirik! (berriz kantatzen da)
/ Hilik! (bukatu da jolasa)*

Nola jolastu?

1. Haurrak ilara bat osatuz jarriko dira, elkarri eskutik ala bizkarretik helduta.
2. Kanta abesten egingo dute aurrera. Guztiak batera abestuko dute.
3. "Mirua zer da: hilik ala bizirik?" galdera iristen denean, azkenengo doan umeak erantzun beharko du. "Bizirik!" erantzuten baldin badu, berriro kantatuko dute abestia. "Hilik!" esanez gero, berriz, bukatu da jolasa.

Ume talde bat toki batetik beste batera mugitzeko erabil daiteke, baina baita bestela ere, jolasteko.

Iturria:

Arrasateko Arantxa Iregiri jasotako kanta-jolasa da. Berak, irakaslea izanik, ikastetxean erabiltzen zuen haurrekin, gelatik jolastokira joateko garaian, baina etxean ikasi ei zuen, eta alpaldiko kanta dela dio.



ANDRA JOXEPA TRONPETAN

Biribilean eta elkarri eskutik helduta kantatzeko kanta



4 urte+



*Andra Joxepa tronpetan
Zein da baserriko onena?
Gure ortuan zer dago?
Azaburua loratzen!
Aitatxo ta amatxo!
Urra-urra, Pepetxo!
A la kinkiñera,
a la samurrera
(umearen izena) Plazaberriko,
jira beste aldera!*

Nola jolastu?

1. Ume denak biribilean jarriko dira, eskutik helduta, eta alde bateratz mugitzen hasiko dira, abestiaren errit-mora.
2. Abestian taldeko baten ize-na esaten denean (adibidez, "Miren Plazaberriko, jira beste aldera") ume hura jiratu egingo da, eta atzera begira jarriko da.
3. Umeek korroan bueltaka jarraituko dute, abestia behin eta berriro abesten, ume guztiak atzeraka begira gelditu arte.

Iturria

Antzinako kanta-jolasa da, korroan egitekoa. "Ala kinkirriñera" bezala ere ezaguna da. Arrasateko Bixenta Agiriano-

ri eta Bergarako Bittori Aranbururi jasotako aldaerak erabili ditugu guk, baina zati hau kenduta (erlijiosoa delako):

*Kristoren zoragarri
jarri belaubiko
Adora Jesukristo*

Debagoienean lekuko gehiagori ere jaso diegu kanta hau, antzeko aldaerak. Andoainen jasotako hau pixka bat desberdina da:

*Korroan korruanera
zunzunera
(Umearen izena) Plazaberriko
jira hadi beste aldera
Jarri belaubiko
adora Jesukristo
Gure baratzan zer dago?
Azaburua loretan
Aitatxo, amatxo
purra-purra txitxotxo*



KUKUARENA DANTZAN

Dantza-jolas bihurtutako ume kanta



4 urte +



*Aita/ama,
nun egiten du
kukuak kabia?
Txantxangorri kabian,
lapurtuz tokia.
Tralalalai,
lapurtuz tokia.
Tralalalai,
lapurtuz tokia.*



Nola jolastu?

1. Umeak biribilean jarriko dira, guztiak batera abesten. Galdera egiteko unean, umeetako batzuk (bitik bat) erdigunerantz joango dira eta hanka altxatuko dute. Ume horiek biribilera bueltatzean, erantzunaren unean, gainerrako umeak joango dira erdigunera, hanka jasotzera.
2. Ondoren ("tralalalai" hasten denean) denak eskutik helduta bueltaka hasiko dira, biribilean, abestia bukatu arte.

Iturria

Kanta herrikoi hau Donostiako Arantxa Lasaren ahotik jaso dugu, eta baita Larrabetzun ere. Kanta-jolas bihurtu zuten Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean. Esku-jolas moduan ere egin daiteke (ikus "Kukuarena txaloka").

Kukuak bereak ez diren habietan jartzen ditu arrautzak sarritan, txori txikiagoen habietan. Txantxangorriaren habian, adibidez. Hala, txori txikiek hazten dituzte kukuaren kumeak.



*Txantxangorria eta
kukua*



HORRA HOR GOIKO


Biribilean egiteko jolas bihurtutako abestia



*Horra hor goiko
hariztitxo baten
kukuak umiak
egin dittu aurten
Kukuak egin
Amilotsak jan
Huraxe kukuaren
zoritxarra zan!
Lalalaralarala*



Amilotsa



Kukua

Nola jolastu?

1. Umeak korroan ipiniko dira, biribilean elkarri eskutik helduta, eta denek abestia kantatuko dute, alde baterantz mugitzen doazelarik (erlojuaren orratzen norabidean, adibidez. Behin baino gehiagotan kantatuz gero, beste alderantz mugi daitezke ondoren: txandaka batera eta bestera).
2. Abestiaren bukaeran, “lalalaralarala” hasten denean, umeek dantza egingo dute, besoak altxatuta eta jira-buel-taka.

Iturria:

Hainbat egoeratan kantatzeko moduko abesti herrikoia da. Bi bertsiio jaso ditugu: Arrasateko Bixente Pagoagarena se-haska kanta da. Aramaioko Felisa eta Margarita Aranak kantatutakoa, berriz, dantzarako aproposagoa.

Amilotsa eta kukua, biak dira txoriak. Kukuari amilotsak jaten omen dizkio kumeak. Kukua, berriz, arrautzak beste txori txikiagoen habietan jartzen dituelako da ezaguna! Horregatik ez ditu bere habian jarriko, amilotsak ez diezazkion jan?



ANDRE MADALEN

Fandangoa dantzatzeko aproposa den kanta



4urte+



*Andre Madalen, Andre Madalen,
laurden erdi bat olio
Aitak jornala ekarrirtzian,
amak pagatuko dio
Amak pagatzen ez baldin badu,
aitak pagatuko dio
Aitak pagatzen ez baldin badu,
hor konpon eta adiyo!*

Nola erabili?

Umeak biribilean jarriko dira eta dantza egingo dute. "Andre Madalen" kantaren doinuak bere dantza dauka, fandangoa, eta horixe egin dezakete. Posible da mol-datzea ere, eta pauso berriak asmatzea.

Iturria:

Usurbilgo Joxe Mari Soroaren etxean umeak loarazteko erabiltzen zuten, sehaska kanta gisa, baina fandangoa dantzatzeko doinu moduan ere oso ezaguna da.

Aldi berean kantatu eta dantzatzeari ez denez erraza, aukera bat honakoa izan daiteke: ume taldetxo batek kantatzen duen bitartean, gainerakoek dantza egitea, eta ondoren alderantziz.



ALPARGATAK URRATUTA

Dantzarako proposa den kanta herrikoia



4urte+



*Alpargatak urratuta,
zapatarik ez
Ernion gelditu nintzan
oiñeko miñez
Hauxe da nekia
horrela ibiltzia
Zextua ere galdu zaigu
kapoiz betia!*

Nola jolastu?

Umeak biribilean jarriko dira eta dantza egingo dute. "Alpargatak urratuta" kantaren doinuak bere dantza dauka: azeri dantza; koreografia horixe egin dezakete. Posible da moldatzea ere, eta pauso berriak asmatzea.

Aldi berean kantatu eta dantzatzea ez denez erraza, aukera bat honakoa izan daiteke: ume taldetxo batek kantatzen

duen bitartean, gainerakoei dantza egitea, eta ondoren alderantziz.

Iturria

Donostiako Xerafina Iriarterri jasotako aldaera proposatzen dugu. Beste aldaera bat ere jaso dugu, Debagoienean ezagunagoa dena; Bergarako Paula Alberdik abestutako aldaera hau, hain zuzen ere:

*Abarketak urratuta
zapatarik ez,
Bermeon gelditu nintzan
oiñeko miñez.
Hauxen da egia,
zortziko berria,
hiru txikin ardorekin
librako ogia*



KISKILLA-MISKILLA

Zenbakiekin jolas egiteko kanta



*Hiru ta hiru sei
hiru bederatzi
hamar hemeretzi
bat hoge
Kiskilla ta miskilla
hirurogei!*



Zer behar da?

Objektu txiki bat: giltzak izan daitezke, pilota bat, kaxatxo bat... Eta leku zabala.

Nola jolastu?

1. Ume denak, bat izan ezik, lurlean eserita jarriko dira, biribil bat osatuz. Zutik dagoenak objektu bat izango du eskuetan.
2. Lurlean eserita dauden haurrek kanta abestuko dute, begiak itxita eta eskuak begien aurrean jarrita. Bitartean, biribiletik kanpora dagoen umea kanpoko aldetik bueltaka ibiliko da, eta abestia amaitu aurretik eskuetan duen objektua lurlean utzi beharko du, umeren baten atzean. Eta bera ere han geratuko da, zutik, objektuaren ondoan.



KISKILLA-MISKILLA



3. Kanta amaitzen denean, ume guztiek begiak irekiko dituzte, eta atzera begiratuko dute, objektuaren bila. Bere atzean objektua ikusten duen umea jaiki egingo da, eta objektua jarri dionaren atzetik hasiko da korrika: harrapatu egin beharko du.
4. Objektua jarri duen umeak egin behar duena: biribilari bi buelta eman, eta hutsunea geratu den tokian eseri, beste umeak bera harrapatu aurretik. Bitarte horretan beste umeak harrapatzen baldin badu, zutik geratuko da berriro, objektua jartzen. Ez baldin badu harrapatzen, berriz, beste umearen txanda izango da.

Iturria:

Amorebieta-Etxanoko Josebe eta Mila Ibaibarriaga ahizpei jasotako antzinako kanta da, kanta-jolas bihurtua. Aldera gehiago ere badira. Ramon Maria Azkuek jasotakoan, esaterako, "miskilla eta miskilla" esan beharrean "talo ta bizkaino" esaten da.

Antzinako esaera-kanta hau zenbakiak ikasteko aproposa da, eta ume txikiekin erabiltzen da. Kantatu egin daiteke, beste barik, baina jolasaren bidez errazagoa da umeek kanta ikastea, behin eta berriz errepikatuko delako. Sokasaltorako ere aproposa izan daiteke. Lehenengo, abestia kanta daiteke, eta bukaeran kontatu: 1, 2, 3, 4, 5... saltaginak huts egin arte.



ARBOLATIK ARBOLARA

Zuhaitz batetik bestera joanez egiten den jolasa



*Txirrin bat eta txirrin bi,
hiru txirrin eta lau txirrin,
bost txirrin eta sei txirrin...*

Txirrin, txirrin, txirrin, txirrin...

Zer behar da?

Espazio zabala, eta, ahal dela, zuhaitzak dau-
den toki bat. Toki perfektua: lauki bat osatzen
duten lau zuhaitz izatea (hiruki bat osatzen du-
ten hiru ere izan daitezke edo laukizuzen bat
osatzen duten sei). Ezin bada, arbolen orde-
z zerbaite erabil daitezke: lau zutabe, adibidez.

Nola jolastu?

Aulki-jokoaren antzeko jolasa da hau, baina aul-
kien ordeztu zuhaitzak erabiltzen dira.

1. Lau zuhaitz aukeratu (lekuaren arabera, 5
edo 6 ere erabil daitezke), eta, jolasten hasi
aurretik, zuhaitzak zein hurrenkeran “ken-
duko” diren erabaki (hor jarraituko dute, nos-
ki, baina ez dute “etxe” moduan balioko).
2. Jokalari kopurua zuhaitz kopurua gehi bat
izango da: zuhaitzak 4 baldin badira, 5 la-
gun. Eta ume batek abestu egingo du. Ho-
rrenbestez, guztira 6 ume izango lirakeke.
3. Ume bat erdiko puntuan jarriko da (zuhai-
tzek osatzen duten laukiaren edo laukizu-

ARBOLATIK ARBOLARA



5 urte+

zenaren erdian), eta kantatu egingo du, besteak bere inguruan bueltaka dituen bitartean. Posible da umeak arbolatik arbolara ibiltzea ere, ume horren inguruan izan gabe.



4. Kantatzen dagoen umeak zenbakiak esateari uzten diotanean, eta, "txirrin-txirrin-txirrin" esaten hasten denean, beste umeak zuhaitzak ikutzera joango dira (beste aukera bat: kantari dagoena isiltzen denean joan behar izatea zuhaitz bila). Zuhaitz gabe geratzen den umea jolasetik kanpora geratuko da.
5. Zuhaitz bat "kenduko" da, jada ez da "etxea" izango. Eta berriz abestuko du umeak. Lau jokalaria egongo dira, eta hiru zuhaitz. Hurrengoan bi zuhaitz eta bukaeran bat.
6. Jokalaria bakarra geratzen denean bukatuko da jolasak.

Iturria:

Elgoibarko Miren Vallejok umetan jolasten zuen modua hartu dugu guk oinarri moduan kanta-jolas hau proposatzeko. "Txirrin" kanta erabiltzen zuten. Arbolatik arbolara jolasean, aulki-jokoan bezalaxe, edozein kanta erabil daiteke.



ARTALATAIKO

Eskutik helduta eta saltoka kantatzeko kanta



3 urte+



Nola jolastu?

Kantatu bitartean eskutik helduta eta saltoka ibiltzeko abestia da. Umeak biribilean jar daitezke, ala ilaran ere bai, elkarri helduta, eta betiere mugimenduan egongo dira, dantzan.

Kantaren bukaeran, "soiñua jo ta dantzatu!" esaten denean, eskuak altxa ditzakete. Toki batetik bestera joateko erabil daitezke kanta hau, denak ilaran joateko.

Iturria

Arrasateko Faustina Galdosi jasotako kanta-jolasa da. "Artolak deuko" kantaren aldaera bat dirudi.

*Artalataiko, artalataiko,
artalataiko bolua.*

*Beria duala, beria duala
mundu guztiko jentia.*

Artalarun andria

Soiñua jo ta dantzatu!



ABESTIAK



TXIKITXO POLIT HORI

Umeei lokartzeko abesten zaien sehaska kanta



0 urte+



*Txikitxo polit hori,
zeu nere laztana,
katiatu ninddazun
libria nintzana.
Libriak libre dira,
zu ta ni katigu,
biok biziko gera
zuk gura badozu.*



Nola erabili?

Haur jaioberriekin, sehaska kanta gisa. 2 urtetik aurrerako haurrek helduekin batera kanta dezakete. Handixea-goek, 3-4 urtetik aurrerakoek, panpinak altzoan hartuta kanta dezakete abestia, beraien kabuz.

Iturria:

Arrasateko Leandra Otxoari jasotako aldaera erabili dugu. Hori bai, antzinako sehaska kanta hau hainbat lekutan jaso dugu. Beste aldaera bat, Bergarako Paula Alberdiri jaso:

*Txikitxo polit hori
zeu nere laztana,
katigatu ninduzun
libria nintzana.
Libriak libre dira,
zu ta ni katibu,
librerik hobe dana
guztiok dakigu.
Nere maiterik
ederrenen honi
usakumiak ekarri
beste guztiri
bana edo biña,
Arkaiztxori (umearen
izena) hamabi.*



BONBOLONTENA

Umeei lokartzeko abesten zaien sehaska kanta



0 urte+



Nola erabili?

Lotarako abestia da, eta ume jaioberrieekin edo handixea-
goekin erabil daiteke. 3-4 urtetik aurrerakoek beraien kan-
ta dezakete abestia, panpinak altzoan hartuta.

Iturria:

Arrasateko Ana Mari Axperi jasotako aldaera erabili
dugu. Azeriak jan dezakeena "erbia" da kasu horretan, bai-
na jaso ditugun beste aldaera batzuetan "bildotsa zariela-
koan" eta "oiloa zarelakuan" ere esaten dute. Besteak bes-
te Zamudion, Lekeition, Mañarian eta Bergaran jaso dugu
antzinako kanta hau.

*Bonbolontena, ene laztana,
ez egin lorik basoan,
azeritxuak eruango zaitu
erbia zeralakoan.*



URTE BERRI-BERRI

Gabonetako eske-kanta



*Urte berri-berri
txarri belarri
dakanak ez dakanari
nik ez daukat eta neri
Kantaretan bat
kantaretan bi
Ekatzu aginaldo, Jaungoikoagatik!
Aginaldo, aginaldo,
gaztainak bota eta isildukooo!*

Kutsu erlijiosoa kendu nahi bada, aukera bat: "Jaungoikoagatik" hitzaren ordeztu "poltsia zabalik" esatea.

Nola erabili?

Gabonetan kanta-eskean erabiltzea izango litzateke politena, ohitura berreskuratzeko. Guraso talde bat umeekin, adibidez.

Ikastetxean bertan ere kanta daiteke; sasoi horretan umeak oporretan egoten direnez, aukera bat hauxe izan daiteke: umeak eskolara bueltatzen diren egunean kanta-eske egitea. Umeek denek batera kantatu, eta irakasleek intxaur, hurra edo goxoki bana eman diezaiekete. Urteroko ohitura bihurtzeko.

Beste aukera bat: kanta esku-jolas bihurtzea. Umeek beraien asma dezaiekete, heldu baten laguntzarekin.

Iturria:

Sasoi batean, herri batzuetan urte hasieran neska-mutikoak kanta-eskean ateratzen ziren. Intxaurrak, hurrak eta txanponak ematen zizkieten. Guk Elgoibarren jaso dugu eskerako kanta



hau, Itziar Ajurriari eta Miren eta Maite Vallejo ahizpei, baina badakigu Deba eskualdeko beste herri batzuetan ere egiten zutela (Eibarren eta Arrasaten, adibidez). Bizkaian ere bai (Lekeitio, Bermeo, Erandio, Derio...). Hona hemen beste aldaera bat, Arrasateko Patxi Goikoleari jasoa:

*Urte barri barri,
dakanak ez daukenari,
nik ez daukat eta niri,
niri emuten ez dostena,
txarri belarri!*




JOLES ETA JOLES

Santa Ageda eskeko koplak



*Joles ta joles etxekotxuak
nik joten dizut atia,
nik joten dizut atia eta
konsolatzeko jentia.*

*Etxeko Andra Marixa
esango dizut egixa:
etxe hontako oilo pintanak
sapaixan dauka habixa.*



Nola erabili?

Santa Ageda egunean (otsailak 5) edo bezperan kantatzeko aproposak dira. Santa Ageda eskean kantatzea da aproposena, kalean, etxerik etxe, baina ikastetxean edo etxean ere kanta daitezke.

Iturria:

Elgoibarko Maria Ormaetxeari jasotako bi kopla dira, Elgoibarko umeez ikasi dituztenak. Asko dira Santa eskeko kantak eta koplak. Herritik herrira aldatu egiten dira. Askotan inprobisatuak ere izaten baitira, adibidez tokian tokiko etxe-ko andreari, jaunari edo alabari eskainiak.

Etxez etxe Santa Ageda eskean joateko ohitura aspaldikoa da. Sasoi batean mutilak bakarrik ateratzen ziren eskean; soldadu joan aurreko agur modukoa izaten zen. Jatekoa ematen zieten eta baita diru pixka bat ere, eta afari ederra egiten zuten horrekin. Azken hamarkadetan ohitura aldatuz joan da, eta gaur egun neskek ere parte hartzen dute.

JOLES ETA JOLES



Hona hemen Andoainen jaso dugun beste kopla polit bat:

*Dios te salve bakailo jale
Bost eta sei hamaika
Txorixorikan ez baldin bada
berdin zaiola lukainka*

Ezer ematen ez zuten etxeetan kantatzen zuten kopletako bat:

*Atso mondrongo-mondrongo
Hik ez don asko emongo
Hik emondako limosniakin
Ez xonau asko edango*



Hori bai, Santa Ageda kopla ezagunenak beharbada hauek izango dira:

*Zorion, etxe hontako denoi!
Oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz.
Baina eztarriz sano gabiltza,
ta kanta nahi degu gogoz.*



SAN JUAN PORTALETAÑA

San Juan bezperan kantatzen den abestia



4urte+



*San Juanetan Portaletaña,
larunbat arratsaldian,
hamalau atso tronpeta joten
motroillo baten gaiñian.
Urra, urra, urra, San Juanetan!
dantzan egingo du ifar haizetan.
Ju, ju, ju, San Juanera goaz gu!
Ju, ju, ju, San Juanetik gatoz gu!*

Nola erabili?

San Juan bezperan kantatzea izango litzateke egokiena. Suarren bueltan kantatzeko abestia da. Ikus San Juanetako kanta-esaera ere; biak batera abes daitezke.

Polita izango litzateke ikastetxeetan ere kanta hau berreskuratzea, eta San Juan eguna gerturatu ahala umeekin kantatzea.

Ume txikiekin keinuka egin daiteke, eta baita biribilean jarrita eta dantzan ere, koreografia txikiren bat asmatuta.

Iturria

Antzinako kanta da, San Juan bezperan kantatzen zena, besteak beste Debarrenean. Elgoibarko Miren eta Maite Vallejo ahizpen ahotik jasotakoa hartu dugu guk oinarri moduan. Beste herri batzuetan ere jaso ditugu kanta honen antzeko aldaerak: Bermeon, Amorebieta-Etxanon, Markina-Xemeinen... Jatorrizko izena "San Juan de la Portaletaña" dela uste dugu, "Sanjuanetan Portaletaña" eta "Sanjuantako Portaletaña" ere jaso ditugun arren.



SAN JUANETAKO KANTA-ESAERA

San Juan bezperan erabiltzen den esapidea



4urte+



*San Juan, San Juan
arraultza bi kolkuan,
beste bi altzuan.
Sorgiñek eta lapurrek erre-erre!
Artuak eta garixek gorde-gorde!
Biba San Juan!*

Nola erabili?

Kanta-esapide hori San Juan bezperan egiten den suaren bueltan erabiltzeko da. Izpiritu txarrak uxatzeko erri-tual modukoa da.

Egin daitekeena: papertxo batean nahi ez ditugun gauzak idatzi, eta esapide hori esate-arekin batera San Juan sura bota. Ikus "San Juanetan Portaletaña" kanta ere. Biak batera abes daitezke, San Juan gae-an. San Juan dantza ere ikas dezakegu, eta dantzatu.

Iturria:

Hainbat lekutan jaso dugu San Juanetako esapidea: Eskoria-tza, Arrasate, Durango, Mañaria... Jatorri paganoa duen antzina-antzinako tradizioa da udaren etorrera ospatzea, bai-na Erdi Aroaz geroztik, kristautasunak bere egin zuenetik, San Joan Bataiatzailea santuaren izena darama. San Juan egunaren (ekainak 24) bezperan egiten den sua da ospakizunaren puntu gorena. Eta suaren bueltan esaten den esapi-

deak izpiritu txarrak uxatzeko eta uzta ona izateko balio du. Hona hemen beste aldaera bat, Amorebieta-Etxanokoa:



*San Juan
San Juan doniandres
Gure soluen lapurrek bez
sorgiñik pez
badago bego
erre beitez!
San Juan
arraultze bi kolkuan
beste bi ahuan
San Juan, San Juan
sorgiñek guztixek
erre deitezela!
Lapurrek guztixek be bai!*



MARKESAREN ALABA

Ezinezko amodio bati buruzko antzinako bertso-sorta



1 Narratzailea

Markes baten alaba
interesatua
marinero bategaz
enamoratua,
deskubritu gaberik
beran sekretua,
amoriua zeban
barrena sartua.

2 Narratzailea + Mar- kesaren alaba (Juanita)

Egun senaile bat zan
goguan hartzeko,
esan ziola horrek
etxera joateko,
-Desio dedan hitzak
manifestatzeko:
Ai Antonio zuregaz
nago izateko.

3 Marinela (Antonio)

-Zela esaten didazu
Juanita hitz hori?
Tentatzen ai zerala
traza badirudi,
ez zait zure gradurik
tokatutzen neri,
ez ixozu egin burlarik
marineruari.

4 Juanita

-Eruki dezakezu
ongi sinistua
aspaldian nauala
ni zuri gustaua,
ez zaitut nik utziko
desanparatua,
hala egiten dezu
gaur juramentua.

5 Narratzailea

Konformatu ziraden
alkarren artian
ezkonduko zirala
hurrengo urtian,
eskolak ikasteko
bien bitartian
beraren herritikan
gutziz apartian.

6 Narratzailea

Hola disponiturik
jarri ziran biak
kartaz entenditzeko
alkarren berriak,
formalidadiakin
jartzeko egiak
baiña lo ez ziran egon
ama horren begiak.


7 Narratzailea

Ezin egon zan ama
hitz hori sufritzen
berihala hasia zan
kartak detenitzen,
intenzio haundiaz
ezkontza galdutzen,
Juanitak holakorik
ez zeban pentsatzen.

8 Juanita

-Alferrik izango dira
haserre gurean
ez naute mudatuko
eternidadean.
Esposatu nahi nuke
kariño onean
Antonio Maria
etortzen denean.

MARKESAREN ALABA



9 Juanitaren ama

-Utzi alde batera horrelako lanak ez ditut nik ikusten zu bezala damak. Nahi badituzu hartu onra eta famak giatuko zaituzte aitak eta amak.

10 Juanita

-Ama ez niri esan horrelakorik ez dut nik besteengana amodiorikan. Ezin alegre leike nere barrenikan komenientzia ona izanagatikan.

11. Narratzailea

Amaren malizia! korreora jua da Antonio hil zala egin zuen karta; Juanitaren tristura, maitia izanda, engainatu du beste gezur bat esanda.

12. Narratzailea + Juanitaren ama

Amak esaten dio: -Juanita neria, galdu da diotenez Antonio Maria Nik bilatuko dizut beste bat hobia maiorazko, interes askoren jabia.

13. Narratzailea

Denpora kunpliturik galaia abian zer pasatu ote zan haren memorian kartarik hartu gabe joan dan aspaldian inozente sartu zan jaio zan herrian.

14. Narratzailea + Antonio

Hau da lehendabiziko esan zenduena: -Zer da musikarekin honrratzen dutena? -Markesaren alaba kalian barrena esposariua zala hark bihar zuena.

15. Narratzailea

Desmaiaturikan egin zuan ordubete gero nobia eske hitz bi egin arte inguratu zitzaion makina bat jente bigarren ordurako hil da derrepente.

16. Narratzailea

Gaba pasatu eta hurrengo goizian entierria zuen bigarren klasian. Markesaren alaba guzien atzian; Zer pena izango zan haren bihotzian?



MARKESAREN ALABA



Nola erabili?

Kanta ikasi, eta kantatu egin daiteke, besterik gabe. Umei erakargarriagoa gertatzeko, antzezlan txiki bat presta daiteke: bertso-antzerkia. Nahi izanez gero, erdi mozorrotuta egin dezakete.

Taldetxoak sortu eta lanak banatu (beraiek erabaki dezatela nola).

Pertsonaiak:

- Narratzailea(k)
- Juanita (Markesaren alaba)
- Antonio (marinela)
- Juanitaren ama

“Markesaren alaba” kantak 21 bertso ditu, baina 16 bertso datoz hemen (gure ustez bizienak eta politenak). Beste aukera bat: 10-12 bertso aukeratzea (istorioaren zentzua mantenduta) eta horiekin egitea bertso-antzezlan.

Iturria:

Kanta herrikoa da, belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititu dena. Besteak beste Elgoibarko Maria Ormaetxeari jaso dizkiogu. Lekuko askok esan digute gaztetan “Markesaren alaba” kantatzen zutela (Arrasate, Oñati, Aretxabaleta, Andoain, Donostia, Hondarribia, Urnieta, Errenteria, Munitibar...). Besteak beste lanean zebiltzan bitartean kantatzen zuten: josten, arropa garbitzen, artoa aletzen...





Ikastetxeetan jolasean

Deba bailarako 9 ikastetxetan landu dituzte liburuxka honetan proposatzen ditugun kanta eta jolasak. Bideoan grabatu genituen, eta lanketak DVDan datoz. Liburuko argazkiak ere ikastetxe horietan ateratakoak dira:

- **Aretxabaleta.** Kurtzebarri ikastetxea.
- **Eibar.** Aldatze ikastetxea, Arrateko Andra Mari ikastetxea, Mogel ikastola eta San Andres ikastetxea.
- **Elgoibar.** Elgoibar ikastola eta Elgoibarko herri eskola.
- **Eskoriatza.** Arizmendi ikastola eta Luis Ezeiza herri eskola.

Txafos. Elgoibar ikastolan 5 urteko umeekin landu zuten, herrian jasotako jolasa berreskuratzeko. Ume guztiak aldi berean korrika jarri zituzten, bi taldetan banatuta (gorriak eta urdinak) elkar harrapatzen.

Zapiaren jolasa edo banderetara. Elgoibarko herri eskolan landu zuten, 5 urteko umeekin.

Tren txartelen jolasa. Elgoibarko ikastolan landu zuten, 5 urteko haurrekin.

Txapa lasterketa. Bi ikastetxetan landu zuten: Elgoibarko herri eskolan, HHko 5 urteko umeekin, eta Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean, LHko 2. mailan.

Tortolosen jolasa: hartzea eta jirratzea. Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean landu zuten, LHko 3. mailan.

Txirikiletan. Aretxabaletako Kurtze-

barri ikastetxean landu zuten, LHko 6. mailan.

Potxoloka. Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean landu zuten, LHko 4. mailan.

Kastorrean edo krinketean. Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean landu zuten, LHko 4. mailan. HHRako ere aproposa da; 4-5 urtetik aurrerako umeekin egin daiteke.

Orratzen jolasak. Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean landu zuten, LHko 1. mailan, 6 urteko umeekin. Orratzen ordeztotxak erabili zituzten, punta margotuta, umeek minik har ez zezaten.

Harri-harrika edo txingoka. Jolas hau Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean landu zuten, LHko 1. mailan, 6-7 urteko umeekin. HHko azken urterako ere aproposa izan daiteke.

Txingor-gainean edo txindurrika. El-

goibarko herri eskolan landu zuten, LHko 1. mailan, 6-7 urteko umeekin.

Asto katea. Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxean landu zuten, LHko 6. mailan.

Binbili-bonbolo. Eibarko Mogel ikastolan landu zuten, HHko 4-5 urteko umeekin.

Txakurbuxa. Elgoibar ikastolan landu zuten, HHko 3 urteko umeekin.

Katarramixon. Elgoibar ikastolan HHko 4 urteko umeekin landu zuten, binaka ipinita.

Arre arre mandako. Eibarko Mogel ikastolan HHn landu zuten, 2 urteko umeekin. Ume bakoitzak panpin bat zeukan magalean, eta hari kantatu behar zion.

Kukurruku. Elgoibar ikastolan landu zuten, HHko 5 urteko umeekin.

Maru-marutxo. Elgoibar ikastolan landu zuten, HHko 3 urteko umeekin.

Atxia-motxia. Eibarko Mogel ikastolan landu zuten, HHko 3-4 urteko umeekin. Ez zuten jolasaren "Kosk ala min?" zatia egin, umeek elkarri minik ez egiteko.

Atzamarren jolas-ipuina. Elgoibarko herri eskolan landu zuten, HHko 4 urteko umeekin, eta baita Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean ere, HHko 5 urtekoekin.

Lehenengotxo hori. Elgoibarko herri eskolan landu zuten, HHko 4 urteko umeekin, eta baita Eibarko Mogel ikastolan ere, HHko 3 urteko umeekin.

Amandre Goringo. Eibarko Aldatze ikastetxean landu zuten, HHko 2 eta 5 urte bitarteko ume guztiekin.

Txalo pin txalo. Eibarko Arrateko Andra Mari ikastetxean landu zuten, HHko 4 urteko umeekin, eta Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean ere bai. Eibarko ikastetxeok ez zituzten hiru

Ikastetxeetan jolasean



gehitu zioten guk proposatutako kantari: *Badago bego/ txalo ta txalo/ zapatatxo berriei begira dago.*

Antontxu zara zu. Jolas hau Eibarko Mogel ikastolan landu zuten, HHko 4 eta 5 urteko haurrekin. Kanta esku-jolas bihurtu zuten.

Dingilin-dangolon. Eibarko Mogel ikastolan landu zuten, HHko 5 urtekoekin, esku-jolas bihurtuta.

Egurretan. Aretxabalelako Kurtzebarri ikastetxean landu zuten, LHko 2. mailan, esku-jolas bihurtuta.

Kukuarena txaloka. Eibarko Mogel ikastolan landu zuten, HHko 5 urteko haurrekin. Esku-jolas bihurtu zuten. Kanta berarekin beste lan-keta bat egin zuten Aretxabalelako Kurtzebarri ikastetxean: ikus **Kukuarena dantzan.**

Haria mataza. Eibarko Mogel ikastolan landu zuten, HHn.

Libiri-labero. HHn landu zuten, Eibarko ikastolan, sokasaltoko kanta bihurtuta.

Txantxurrillo edo Txantxibiri. Eibarko Mogel ikastolan landu zuten, HHn, eta Aretxabalelako Kurtzebarri ikastetxe-

an LHko 3. mailan.

Arriola Marriola. Elgoibar ikastolan landu zuten, HHko 5 urtekoekin.

Don Don Kikikon. Elgoibarko herri eskolan landu zuten, HHko 5 urteko umeekin.

Dona Dona Katona. Elgoibarko herri eskolan landu zuten, HHko 4 urteko umeekin.

Goazen baratzera. Eibarko Mogel ikastolan HHn landu zuten.

Andra Joxepa tronpetan. Eibarko Mogel ikastolan landu zuten, HHko 4 eta 5 urteko umeekin.

Kukuarena dantzan. Aretxabalelako Kurtzebarri ikastetxean landu zuten, LHko 1. mailan. Beraiek asmatu zuten dantza-jolasa. Ikus **Kukuarena txaloka.**

Horra hor goiko. Eibarko Mogel ikastolan kanta-jolas bihurtu, eta HHko 4-5 urteko umeekin landu zuten.

Andre Madalen. Eibarko Mogel ikastolako haurrekin landu zuten, HHko 4 urtekoekin. Eta Aretxabalelako Kurtzebarri ere bai, LHko 4. Mailan; han, soinua eta panderoa erabili zituzten: lehenengo kantatu egin zuten, eta ondoren dantzatu.

Alpargatak urratuta. Eibarko Mogel ikastolako HHko 5 urteko haurrekin landu zuten. Eta Aretxabalelako Kurtzebarri ikastetxean ere bai, LHko 5. mailan. Han, soinua eta panderoa erabili zituzten. Lehenengo, soinua erritmorik dantzatu eta ondoren kantatu (dantzaziz jantzita).

Kiskilla-miskilla. Elgoibar ikastolan landu zuten, HHko 4 urtekoekin.

Arbolatik arbolara. Elgoibarko herri eskolan landu zuten, HHko 5 urteko umeekin. Lau zuhaitzen ordeztu, bi zuhaitz eta bi zutabe erabili zituzten.

Artalataiko. Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean landu zuten, HHko biurtekoekin. Lehenengoan, ikastetxean bertan grabatu zituzten umeak bideoan, kantuan. Handik pare bat urtera, beste talde batekin erabili zuten: eskutik helduta dantzatu eta kantatu zuten. Txistua eta danbolina ere jo zituzten irakasleak.

Txikitxo polit hori. Eskoriatzako bi ikastetxetan landu dute sehaska, HHn: Luis Ezeiza ikastetxean eta Arizmendi ikastolan, 5 urteko umeekin. Luis Ezeizakoek beraiek grabatu zituzten bideoan umeak.

Arizmendin umeek panpinak hartu zituzten altzoan.

Bonbolontena. Eibarko San Andres ikastetxean landu zuten, HHko 5 urteko umeekin.

Joles eta joles. Elgoibarren jasotako bi kopa horiek Elgoibar ikastolan ikasi zituzten 4 urteko umeek. Santa Ageda kanta-eskeko argazkikoak ere ikastola horretako umeak dira.

Urte berri, berri. Elgoibar ikastolan HHko 4 urteko umeekin landu zuten kanta hau.

San Juan Portaletaña. Elgoibar ikastolako HHko 5 urteko umeekin landu zuten.

San Juan kanta-esaera. Aretxabalelako Kurtzebarri ikastetxean LHko 6. mailako ikasleekin landu zuten. Esapidea ikasteaz gainera, San Juan eguneko dantza ere ikasi zuten.

Markesaren alaba. Aretxabalelako Kurtzebarri ikastetxeko LHko 3. eta 4. mailako ikasleek bertso antzerkia egin zuten.

Bukaerako hitzak

Euskal Herriko Ahotsak, **Ahotsak.eus**, proiektuan jasotako 60tik gora lekukoren testigantzak erabili ditugu lan hau egiteko. Adinekoak dira gehienak eta Deba eskualdekoak, beste herri batzuetakoak ere badauden arren. Grabazio batzuk berariaz proiektu honetarako egin ditugu, baina gehienak ez: aurretik genituen jasota, eta hainbat lanetarako egindako elkarrizketen emaitza dira. AED elkartearekin elkarlanean egindako “Arrasateko Haur Kantak eta Jolasak” proiektua (2005), esate baterako, oso baliagarria gertatu zaigu.

Liburuxka honetan bildutako kanta eta jolasak lekuko hauei esker jaso ditugu, besteak beste:

Amorebieta-Etxano: Santi Villareal, Josebe eta Mila Ibaibarriaga. **Antzuola:** Josefa Iparragirre, Maria Aranguren, Joxepa Aranzabal, Joxepa Lizarralde. **Aramaio:** Kontxi Garaitonandia, Luzia Arrizabalaga, Felisa eta Margarita Arana. **Aretxabaleta:** Miren Zuazabeitia, Patxi Abasolo, Xabier Zubizarreta, Leandra Elizburu, Jesusa Lasagabaster. **Arrasate:** Bixenta Agiriano, Lorentza Altuna, Miren Abarrategi, Isabel Aranburuzabala, Begoña Arregi, Ana Mari Axpe, Faustina Galdos, Patxi Goikolea, Arantxa Iregi, Leandra Otxoa, Pedro Zumelaga, Espe Lizarralde, Bixente Pagoaga. **Aulesti:** Cresen Urkidi. **Ber-**

gara: Luis Aranzabal, Bitori Aranburu, Celestina Oteiza. **Donostia:** Xerafina Iriarte, Arantxa Lasa. **Durango:** Teresa Jaio, Isidro Ugarte, Feli Uribe. **Eibar:** Mari Karmen Agirre, Julita Arregi, Felix Barrutia, Serafin Basauri, Mertxe Ugarte, Benigna Sarrasketa. **Elgoibar:** Itziar Ajuria, Miren Vallejo, Maite Vallejo, Nati eta Agurne Muguruza, Maria Ormaetxea. **Elorrio:** Patxi Treviño. **Errenteria:** Begoña Lizaso. **Eskoriatza:** Rufino Segura, Esteban Arrieta, Mari Karmen Pagaldai. **Hernani:** Enriketa Aranburu, Valentina Ugalde. **Legazpi:** Jesusa Zabala. **Lekeitio:** Jesusa Akarregi. **Lezo:** Bitoriana Artola, Arantxa Lareta. **Mañaria:** Luzia Inzunza. **Muxika:** Fernando Alegria. **Ondarroa:** Antigua Urbietta. **Oñati:** Pilar Barrena, Rosario Kortabarria, Eugeni Olalde. **Orio:** Karmele Esnal. **Tolosa:** Maria Eugenia Uriarte. **Urretxu:** Pakita Errasti. **Usurbil:** Joxe Mari Soroa.

Mila esker proiektuan parte hartu duten ikastetxeei eta udalei ere: **Aretxabaleta, Eibar, Elgoibar** eta **Eskoriatza**. Beraiek gabe ez zen posible izango.

Mila esker guztioi!





Egileak



ahotsak.eus
Euskal Herrira hakerak eta ahozko antzaria

Babesleak



Aretxabaletako
Udala



ELGOIBARKO
UDALA

EUSKARA



eskoriatza ko
udala

ISBN 978-84-606671-1-7



9 788460 667117 >